

g txostena report 2007
Saindegia

Izenburua: Gaindegia Txostena 2007 / Gaindegia Report 2007

Egilea:

Gaindegia

Argitaratzea:

Gaindegia

Martin Ugalde Kultur Parkea

20140 Andoain

Gipuzkoa

Tel. +34 943 304 365

www.gaindegia.org

Argitalpen batzordeko zuzendaria:

Joxerra Bustillo

Koordinatzailea:

Irati Azkue Leunda

Kolaboratzaileak:

Koldo Saratxaga, Mikel Zurbano, Iñaki Conde, Ion Andoni del Amo, Txema Mendibil, Helena Franco, Anton Borja, Koldo Navascues, Mixel Garikoitz, Ivan Santamaria, Juan Angel Monreal, Alazne Basañez, Aitor Renteria, Begoña Martin, Aitziber Arzallus, Xabier Aja, Carlos Etxeberri

Kazetari lanak:

Jokin Sagarzazu

Itzultzaileak:

Euskara eta gaztelania: Maria Colera Intxausti

Ingelesa: Kit Cree

Frantsesa: Mercedes Camblor Zamora

Lehenengo edizioa:

Andoain, 2008ko martxoa

Copyright:

© Gaindegia

Diseinua eta maketazioa:

nabarrera.com

Tel.: 948 22 71 25

Inprimaketa:

Gráficas Iratxe

Lege gordailua:

SS-437-2008

Gaindegiak ez ditu bereak egiten argitalpen honetan kolaboratzaileek adierazten dituzten iritziak



Argitalpen honek Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Herri Administrazio Saileko diru laguntza jaso du

Aurkibidea

<i>Sar hitza</i>5
<i>Hitzaurrea</i>6
<i>Euskal Herria 2007 adierazleetan</i>8
<i>Zifratan gakoa</i>14
<i>Adituen analisisa</i>18
<i>Urteko ikerketak</i>40
<i>Prentsan jasotakoa</i>47
<i>Euskal Herriko eragile sozio- ekonomikoen oinarritzko gida</i>49
<i>Gaindegiaren argitalpen katalogoa</i>59



Xabier Isasi
Gaindegiako lehendakaria

GAINDEGIaren sorreratik bertatik Euskal Herria zertan den azaltzea izan da gure xedea eta iparorratza. Euskal Herria zertan den, propio esaten dugu, bera definitzen duten datu, adierazle eta gai esanguratsuak zeintzuk diren jakitea, alegia. Informazio eta komunikazioaren jendartean bizi gara. Gero eta informazio gehiago dago edozeinen esku. Hori, berez, ona da, *klik* batean berehala eta ia edozein gairi buruzko informazioa aurki dezakegu. GAINDEGIak, hain zuzen ere, Euskal Herriari buruzko informazioa biltzeari lotu zitzaionetik informazio asko dagoela ikusi ahal izan du.

Apurka-apurka milaka datu, indize eta adierazle batu ditugu. Lan hori beharrezkoa da. Dagoeneko, GAINDEGIa, Euskal Herriari dagokionez, ekonomia eta jendarteari buruzko datu eta informazio gehien biltzen duen erakundeetako bat da. Baina gure helburua ez zen, soilik, datu eta informazio biltegia izatea. Izaera estatistikozko informazioak ez du deus ere balio ustiari eta erabili gabe. Argitalpen honen bitartez, hain zuzen ere, egindako lanen zati bat ipini nahi izan dugu ekonomia eta jendarteko eragileen esku.

Behar izan eta aipatu arrazoi horiek eraman gaituzte lan hau argitaratzera. Txostena sei atal nagusitan banatu dugu: Euskal Herria

2007 adierazleetan, Zifratan gakoa, Adituen analisiak, Urteko ikerketak, Prentsan jasotakoa eta Eragile sozio-ekonomikoen oinarritzakoa eta Eragile sozio-ekonomikoen oinarritzakoa. Bi irizpide adierazgarri gidatu dute gure lana. Aurrenik eta behin, gaur eguneko Euskal Herriari buruzko informazio garrantzitsua eta osotuena plazaratzea. Eta, aurrekoarekin batera, erabilgarritasuna. Informazio erabilgarri eta eskuragarria eskaintzea, modu eroso eta atseginean. Irizpide horiei lotu gaitzaizkie; zuok, eragileok, adieraziko diguzue asmatu dugun ala ez.

GAINDEGIak, bere aldetik, hiru ondorio aipagarri atera ditu lan hau egiterakoan. Aurrena, lehendik genekiena, Euskal Herri osoaren gaineko informazio oso gutxi dagoela. Bigarrena, desberdintasunak desberdintasun Euskal Herriko lurraldeen artean gehiago direla elementu eta ezaugarri komunak diferentziak baino. Hirugarren ondorioak aurrekoari darraio, ekonomia eta jendarteari buruz jasotako informazioaren arabera lurraldeen arteko loturak areagotzeko joerak badaudela.

Kohesio adierazle horiek sakonago eta zabalago aztertu behar dira, jakina. Horretan gabiltza. Bien bitartean, adiskideak, argitalpen hau interesgarria eta, batez ere, erabilgarria gerta dakizuen nahi genuke.

Etorkizuna zure esku



Koldo Saratxaga
Irizar kooperatibako
zuzendari ohia eta enpresa
kudeaketarako aholkularia

Etorkizunari buruzko iragarpenak egiteko, are 2008ak ekarriko digunari bakarrik begiratzen badiogu ere, AEBetako atzeraldia hartu behar dugu aintzakotzat, ezinbestean. Estatubatuarrek gero eta kezkatuago daude beren etorkizunarekin.

Hala, tximeleta efektuaren ondorioz, azken hilabeteetako egoerak bere bilakaera propioa izan du, eta munduko ekonomia eta gizarte guztiak ari dira ondorioak jasaten, mundu globalizatu honetan.

Horren ondorioz, inflazioari buruzko artikulua eta iruzkinak irakurtzen eta entzuten ditugu egunero, eta egia da ekonomia berrien aldean gero eta lehiakortasun gutxiago izatera garamatzala gure inflazioak; BPG gainbeheran dagoela azken hilabeteotan, nahiz eta ez dirudien egoera kritikoetara iritsiko garenik epe laburrean; jarduera eta eskaria beherantz doazela; egoera horren ondorio diren enplegu-adierazleak ere antzera dabiltzala; eta horrek guztiak eraikuntzan duela eraginik handiena. Eta, jakina, faktore horiek guztiek kezkatu egiten dituzte herritarrak, eta kontsumoa gutxitzen hasten dira, nahiz eta egoera askorik ulertu ez.

Bestalde, ohiko osagairik ez da falta: politikariak hortxe ari dira *etorkizunerako ondo prestatuta gaudela* esanez, zergatia argi azaldu gabe eta, batez ere, herritarrak gertatzen denaz askorik jabetu gabe.

Ekonomiak bizitza partikularren gainean beti botatzen duen zalantzazko itzal horren aurretik inoizko hazkunde-ziklorik handiena izan dugu bost kontinenteetan. Azken urteak oso oparoak izan dira eta enpresa asko egoera gero eta konplexuago batean murgildu dira, nola gertatu den eta norantz doazen oso garbi izan gabe ere.

Oparoaldi berezi horren ondorioz, enpresek epe laburrari, ekoizpenari, begiratzen diote bakarrik, aldeko haizea lagun dutela, baina gihar propiorik sortzen ahalegindu gabe, hots, haizea baretzen denean aurrera egiten lagunduko dien motor propiorik sortu gabe.

Ez da batere ulergarria nolatan erreferentzia makroekonomiko ezin hobekak ditugun uneetan enpresen %20k ez duten lortzen emaitza positiborik.

Eta horixe guztia gure herri txiki honetan, Euskal Herrian, gertatzen da. Enpresa txiki eta ertainek eta enpresa horien ibilbideak gure ekonomiarentzat eta, ondorioz, gure aurrerabide eta ongizaterako, berebiziko garrantzia duten herri honetantxe.

Oso garrantzitsua da aldeko haizea aprobetxatzea, noski, baina erakunde guztiei gogoratu nahi nieke ezin dutela utzi BPG-ko puntu bat edo bi beren arrakastaren edo porrotaren kausa izatea.

Arrazoiren bategatik edo bestearengatik astinduko gaituzten denborale eta ekaitzei aurre egiteko prest egon behar dugu.

Gure herriak kontu handiz zaindu beharreko bi arazo dauzkagu; bi aukera, beraz: hezkuntza eta inmigrazioa

Iruditzen zait ederki frogatu dudala errealitatea ezagutzen eta partekatzen duten eta etorkizunerako orientazio egokia duten pertsonetan oinarritutako proiektu bat gai dela bere indarra eta giharra sortzeko eta aldeko haizeak hobeto aprobetxatzeko.

Pertsonok sormena izeneko gaitasuna daukagu, arazo zehatzei aurre egiteko ideiak, alternatibak eta konponbideak sortzeko gaitasuna, alegia. Sormen hori berezkoa dugu pertsonok, eta berrikuntza lortzeko funtsezko oinarria da, berrikuntzaren adiera zabalenean. Hortik abiatuta, eta jende guztiari aukerak emanez, ezagutza berriak sortzeko gai izango gara.

Ez da topiko hutsa: garai berria hasi da. *Ezagutzaren garaia, etorkizunerako bermea pertsonak direneko garaia.*

Arazo guztiek aukera berriak dakartzatela esan beharra daukat, eta horretarako ez naiz teoriarik oinarritzen, esperientzian baizik. Zalantza-egoeretan hasten gara gure sorkuntzarako gaitasuna, gure sormena, modu esponentzian aktibatzen. Orduan, sistema katotiko ireki batzuek gidatzen dute gure burmuina, gure ingurunean etengabe gertatzen diren aldaketei sormenean oinarritutako erantzunak emateko aukera emanez.

Enpresek eta erakundeek porrot egiten badute enpresa eta erakunde horiek gidatzeko gaitasun desegokia dutelako gertatzen de-

lakoan nago. Ratio ekonomiko positibo nahiz negatiboen garaietan, beti egon dira eta beti egongo dira gurutzaldi-abiaduran jarraitzen duten erakundeak eta noraezean dabiltzanak.

Epe luzeagoan pentsatuz, politikariek horrelakorik egiteko asmorik ez dutela dirudien arren, gure herriak kontu handiz zaindu beharreko bi arazo dauzkagu; bi aukera, beraz: hezkuntza eta inmigrazioa.

Ezin dugu Europan ezereen erreferentzia izateko asmotan ibili, duela hamarkada luzeetatik hezkuntza-ereduan gure aurretik dabilzan Finlandia, Suedia eta halako herriekin lehiatuta.

Bestalde, etorkinekin ezin ditugu inguruko herriek egin dituzten akats berdinak egin.

Euskal Herrian, bere gaitasun propioak sortu behar dituen herri txiki honetan, arazo larria daukagu biztanleriaren zahartzearekin. Gaur egun zailtasun handiak dauzkagu jarduera askotan ondo prestatutako langileak aurkitzeko. Datozen urteotan are larriagoa izango da arazo hori, eta erakunde publikoek behar dituzten milaka eta milaka ordezkapen egin beharko ditugu.

Horrenbestez, oraingo eta etorkizuneko beharrei erantzuten dieten hezkuntza-ereduak sortu behar ditugu etorkizunari aurre egiteko, eta etorkinen integrazioa bultzatu behar dugu, gure beharren arabera.



874.09





Euskal Herria 2007 adierazleetan

Adierazle nagusien zerrenda hautatua
eta analisisa

BIZTANLERIA ETA LURRALDEA		URTEA	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	LAPURDI	NAFARROA BEHEREA	ZUBEROA
1	▫ AZALERA ETA BIZTANLERIAREN DENTSITATEA (BIZT./KM ²)	2006	91,4	509,3	349	266,2	21,8	19
2	▫ BIZTANLERIA (MILAKA)	2006	303,1	1.139,1	691,1	227,8	28,8	15,5
3	▫ BIZTANLERIA ADIN TALDEKA (%) < =14	01 hego./99 lp.	12,1	11,4	12,5	15,5	14,9	13,3
4	▫ BIZTANLERIA ADIN TALDEKA (%) > =65	01 hego./99 lp.	16,1	18,7	17,7	21,4	23,5	26,4
5	▫ JAIOZAK (1000 BIZTANLEKO)	2004	9,5	9	10	10	11	9
6	▫ HERIOTZAK (1000 BIZTANLEKO)	2004	9,1	9,2	8,8	10,8	14,1	3,7
7	▫ MIGRAZIO SALDOA (BIZT.)	1999-2005	7.287	3.641	3.787	9.535	1.141	492
EKONOMIA								
8	▫ BPG BIZTANLEKO (EAP) (EUROTAN)	2004	29.910,6	25.900	27.485,6			
9	▫ LANAREN PRODUKTIBITATEA ENPLEGATUKO	2004	124,8	122,3	117,3			
10	▫ ENPRESA INBERTSIOA (BPGREN %)	2004						
11	▫ I+GKO GASTUA (BPGREN %) (MILIOI EUROTAN)	2003	1,2	1,4	1,6			
12	EKONOMIAREN IREKIDURA MAILA: ESPORTAZIOAK (MILIOI EUROTAN)	2006	4	5,4	5			
13	EKONOMIAREN IREKIDURA MAILA: INPORTAZIOAK (MILIOI EUROTAN)	2006	2,5	8,8	3,2			
14	EKONOMIAREN IREKIDURA MAILA: SALDOA (MILIOI EUROTAN)	2006	1,5	-3,4	1,7			
15	PERTSONA AKTIBOKO ERRENTA ERABILGARRIA (EUROTAN)	2004	28.789,4	31.155,9	30.835,2			
GIZARTEA								
16	▫ GAZTEEN HEZKUNTZA MAILA (%)	2004						
17	ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIAKO GRADUATUAK, MILA BIZTANLEKO	2003						
18	▫ ENPLEGU-TASA (15-64 URTE) (%)	2005	67,5	62,9	68,1			
19	▫ EMAKUMEEN ENPLEGU-TASA (%)	2005	57,4	53,8	58,6			
20	▫ 55-64 URTE BITARTEKOEN ENPLEGU-TASA (%)	2005						
21	▫ LANGABEZIA-TASA (%)	2005	7,1	8,5	5,7			
22	▫ EMAKUMEEN LANGABEZIA-TASA (%)	2005	8,8	11,4	7,1			
23	▫ IRAUPEN LUZEKO LANGABEZIA-TASA (%)	2005	1,7	2,1	1,4			
24	▫ POBREZIAN MURGILTZEKO ARRISKU-TASA, TRANSFERENTZIA SOZIALAK EGIN ONDOREN (%)	2004						
25	▫ GIZARTE BABESA (BPGREN %)	2004						

▫ BPG BIZTANLEKO (EAP) (EUROTAN)



▫ ENPRESA INBERTSIOA (BPGREN %)



NAFARROA GARAIA	EAE	IPARRALDEA	EUSKAL HERRIA	EUROPAKO BATASUNA	AEB	JAPONIA
57,6	283,2		143,5	o 114,3	31	338
600,2	2.133,3		3.005,7	492.852,4	302.841	127.953
13,7	11,8		12,5	• 17	21,6	14,6
18,1	17,9		18,3	• 15,8	12,3	17,2
10,9	9,4		9,8	o 10,7	14,1	9
8,6	8,9		9,1	o 9,9	8,3	8
46.802	14.715		72.684			

27.252,3	26.974,8	21.517,5	26.533,1	• 21.502,9	33.351	24.384,3
110,8	120,7	110,2	117,9	• 100	140,2	98,7
27,3	24,1	22	23,1	• 19,7	19,6	23,3
1,3	1,4	1,2	1,3	• 1,9	2,7	3,2
4,9	14,3	0,5	19,6		825,9	515,1
4,4	14,5	0,4	19,3		1.528,4	461,2
0,5	-0,2	0,1	0,3		-702,4	53,8
31.310,7	30.737,9	36.551,2	31.347,3			

75,7	80,2	78,5	79,2	o 76,5		
13,1	28,3	18,8	24,4	• 12,2		
69,1	65,5	59,1	65,6	o 63,4	71,5	69,3
58,2	54,6	53,8	55,7	o 56,2	65,6	58,1
48	41,7	37,9	42,9	o 40,7	59,9	63
5,6	7,3	8,9	7,1	o 8,9	5,1	4,4
7,6	9,6	13,8	9,5	o 9,6	5,1	4,2
1	2	3,2	1,9	o 4,1	0,6	1,5
12,7	16,5	13	15,4	• 16		
19	18,5	31	19,7	• 27,3		

□: EUSTAT-ek Europako Batasuneko herrialdeekin alderatzeko hautatutako adierazleetako bat da (Ikus, Euskadi27en EBn izeneko argitalpena, EUSTAT (2007).

■: EUROSTAT-ek Europako garapen estrategiari jarraipena egiteko hautatutako adierazlea (Ikus, <http://epp.eurostat.cec.eu.int>).

EAP: Erosteko Ahalmen Parekatua



Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoako datuak ekonomian eta gizarte gaietan estimazioak dira eta teknikoki gaur egun ezinezkoa zaigu herrialdeka bereizturik ematea, horregatik "Iparraldea" izeneko epigrafean batera jaso ditugu.

○: EB-27


●: EB-25

- Datua 2000koa da.
- Datua 2001ekoa da.
- Datua 2005ekoa da.

□ BIZTANLERIA (MILAKA)



□ GAREN %



Errenta maila garaia, baina...

Mikel Zurbarano · Ekonomian doktorea. EHUko ekonomia aplikatua I Saileko Zuzendaria



Euskal Herri osorako adierazle sozio-ekonomiko bateragarrien zerrenda dugu eskuartearen lehenengoz. Urratsa ez da nolana hikoia. Erabilitako metodologian oinarritutako sendoa erakusten da eta aintzat hartutako adierazleak nolakoak eta zenbatekoak abiapuntu paregabearen aurrean gaudela erakusten dute. Zailtasunak zailtasun datu iturri sozio-ekonomiko nagusietako adierazle behinenak landu izan dira. Asko dago egiteko hemendik aurrera baina zalantzarik gabe etorkizunean arlo honetan jorratu beharreko iparorratza da gaur plazara ematen den lagin estatistiko hau.

Datuoi erreparatuz, Euskal Herrian 3 milioi pertsonatik gora bizi gara. Europako Batasuneko Estatu txiki batzuetako biztanle kopurua aise gainditzen du kopuru honek. Areago 143,5 biztanle bizi dira kilometro karratuko Euskal Herrian Europa-





ko Batasunean 114,3 bizi diren bitartean. Honek eragin garrantzitsuak ditu lurraldearen okupazioan eta antolakuntzaren ereduan. Datuek erakusten dute dentsitatearen gorengo puntuak Euskal Herriko kostaldeko herrialdeetan aurkitzen dela, Bizkaian, Gipuzkoan eta Lapurdin, hurrenez hurren. Bestetik, populazioaren dinamikasunaren ikuspegitik zera azpimarratu behar da, hamalau urtetik beherako biztanleria populazio osoaren %12,5 zela mendearen hasieran eta, aldiz, 65 urtetik gorakoaren ehunekoak 18,3. Lehen EB zein AEBetako tasaren oso behetik dago eta bigarrena bi eremu hauetako ehunekoaren oso gainetik. Honek erakusten du Euskal Herriak mendebaleko herrietako populazioaren zaharkitze prozesu bizkorrenetarikoa duela eta etorkizun hurbilean biztanleriaren galera ezagutuko duela baldin eta migrazio saldoa azken ur-

▪ I+GKO GASTUA (BPGREN %)



PERTSONA AKTIBOKO ERRENTA ERABILGARRIA (EUROTAN)



ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA BIZTANLEKO




teetako mailan mantentzen bada (hamarkada honetako lehen erdian migrazio saldo positiboa izan du Euskal Herriak, 72.684 biztanle gehiago). Bizkaia da daturik muturrekoenak erakusten duen herrialdea.

Adierazle ekonomikoei erreparatuz baieztatzen da Euskal Herriak errenta maila garaia duela. Oparotasun hori erakusten du biztanleko BPGren mailak. Izan ere, Europako Batasuneko batz bestekoa oso atzean uzten du horrek (5.000 euroko aldea), Japoniakoa ere gaindituz. Etorkizun ekonomikoa baldintzatzen duten adierazle batzuk ere oinarri sendoa erakusten dute. Hala da gutxienez produktibitatearen eta enpresen inbertsioen kasuetan, bi adierazle hauek Europako Batasunekoaren eta Japoniakoa mailatik gora baitaude. Aitzitik, Euskal Herriko I+Gko gastua apala da eremu hauetako batz bestearikiko.


Nolanahi ere, gizartearen kohesio maila erakusten duten adierazle gehienek ez datoz bat arlo ekonomikoan aipatu dugun

dinamikotasun mailarekin. Horrela enplegu tasari zein emakumearen enplegu tasari eta 55-64 bitartekoaren enplegu tasari dagokienean Euskal Herriko datuak EBeko batz bestea doi-doi gainditzen dute eta oso urrun geratzen dira AEB eta Japoniako enplegu-tasen mailekiko. Antzeko eredia ematen da langabezia-tasaren adierazleekin: Euskal Herriko datuak EBko batez besteko mailaren azpitik egon arren oso hurbilekoak dira baina aise gainditzen dituzte AEBetako zein Japoniako langabezi tasa orokorra eta emakumeen langabezi tasa (baita iraupen luzeko langabezi tasaren maila ere). Beraz, Euskal Herria errenta altuko ekonomia izan arren berau banatzeko garaian oztopoak daude bidezkotasanaren ikuspegitik. Haratago, errentaren banaketaren ondorio larrienak gainditzeko dauden mekanismoen arteko bat, gizarte-babesaren adierazleak hain zuzen, erakusten du Euskal Herriko kasuan labur geratzen dela Europako Batasuneko batz besteko babesarekin alderatuz.





AKO GRADUATUAK, MILA



EMAKUMEEN ENPLEGU-TASA (%)



POBREZIAN MURGILTZEKO ARRISKU-TASA, TRANSFERENTZIA SOZIALAK EGIN ONDOREN (%)





M

C

7



874.09

5

874.09


1000 900 800 700 600 500 400 300 200 100 0





Zifratan gakoa

2007 urteko ekonomia eta gizarteko
zifra adierazgarriak



685

Euskal Herria 685 udalerrik eta 76 fazeria edo partzuergek osatzen dute

eta horien artean daude Eskiula (Zuberoa), Villaverde Turtzioz (Bizkaia) eta Trebiñukoak (Araba). Udalerrien banaketa herrialdeka honela gelditzen da: Araban 53, Bizkaian 113, Gipuzkoan 88, Lapurdin 41, Nafarroa Beherean 75, Nafarroa Garaian 272 eta Zuberoan 43. Fazeria edo partzuergoei dagokionez 70 Nafarroa Garaian daude.

Iturria: www.datutalaia.net

Euskal Herrian pertsona aktibo bakoitzaren errenta erabilgarria 31.347 €koa izan da (2004. urtean). Iparraldean da errenta erabilgarri altuena izan zuena (36.551 €) eta Arabak baxuena (28.789 €). Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa Garaiak, ordea, oso antzeko errenta izan zuten, 31.000 € ingurukoa.

31.347



508

Bizkaiko dentsitatea biztanle km²-ko 508koa da Europako altuenetarikoa estatu mailako indizeekin alderatuz gero. Euskal Herriak 142,8 bizt./km²-ko dentsitatea du, zerrendako lehenengo postuetatik nahiko urrun, esaterako Herbehereak (481 bizt./km²) edo Belgika (342,3 bizt./km²) eta beste muturrean, beste estatu batzuekin alderatuz oso gaitetik, Espainiako Estatu (85,3 bizt./km²), Frantziako Estatu (111,3 bizt./km²) edota Irlanda (58,5 bizt./km²).

Iturria: EUROSTAT eta Gaindegia.



18.

Europako Batasuneko 25 estatuen gizarte babes maila neurtuta Euskal Herria 18. lekuan dago, Espainiako estatu, Polonia eta Txekiar Errepublikaren artean. Iparraldeko gizarte babes maila altuak emendatzen du Euskal Herriko indizea %19,7. EAEko indizea (%18,5) Espainiako estatuaren atzetik dago; (17. lekuan, %20), aldez, Iparraldekoa (%31) hirugarren lekuan, Suedia (%32,9) eta Frantziako estatu soilik gailentzen zaizkiola (%31,2).

Iturria: EUROSTAT eta Gaindegia.



Zifratan gakoa

Euskal herritarrek pobrezian murgiltzeko duten arrisku tasa %15,4koa da. Euskal Herria Alemania (%16) eta Lituaniaren (%15) parean dabil alor honetan. Okerrago dabilta Espainiako estatua, Portugal eta Irlanda %21ekin. Indizierik onenak Txekiar Errepublikak (%8), Esloveniak (%10) eta Danimarkak (%11) dute. Hala eta guztiz ere, Euskal Herriko lurraldeen artean, Nafarroa Garaiak (%12,7) du indizierik onena. Herrialde guztietan emakumeen arrisku tasa gizonezkoena baino altuagoa da, Iparraldean izan ezik, parekoa baita.

Iturria: Gaindegia, EUROSTAT



2003 urtean zehar I+G-ean egindako inbertsioa BPGren %1,3 izan zen Euskal Herri osoan. Europako Batasunak 2010erako helburu gisa inbertsioa %3an finkatzea onartu zuen. Espainiak BPGren %3,95 inbertitu zuen eta Finlandiak %3,43. Italiak, aldiz, %1,11 eta Espainiako Estatuak %1,05. Euskal Herriko portzentajea nabarmen aldatzea espero da abian jarriko diren inbertsio plan desberdinekin.

Iturria: EUROSTAT eta Gaindegia

117 langile hil ziren Euskal Herrian 2007. urtean lan istripuen ondorioz. Araban hildakoak 18 izan ziren, Bizkaian 48, Gipuzkoan 27, Lapurdin 3, Nafarroa Beherean 1 eta Nafarroa Garaian 20. Zuberotan ez zen lan istripuz hildakorik jaso.

Iturria: LAB sindikatua



2005. urtean, Nafarroa Garaiko ekonomiak 2.180,9 milioi euro fakturatu zituen Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko bezeroekin. Hori dela eta, hiru herrialdeok Nafarroa Garaiko ekonomiaren bezero nagusitzat har ditzakegu (fakturazioaren %23). Era berean, hiru herrialde hauetako enpresak dira Nafarroa Garaiko enpresen hornitzaile nagusiak (fakturazioaren %31,8). Honek guztiak agerian uzten du Euskal Herriko herrialdeen arteko harreman sakona eta elkarren mendekotasuna.

Iturria: www.c-intereg.es



874.09



Vertical text on the left edge, possibly a page number or title, rendered in a light blue color.





Adituen analisi

2007 urteko gai esanguratsuenak

- Ikerketa, garapena eta berrikuntza.
- Garraiobideak: errepide sareak.
- Etxebizitza hutsak.
- Lanbide heziketa.
- Saltoki txikiak.

Enpresek I+G-ra bideratzen duten gastua urria da oraindik

Iparraldean eta Nafarroa Garaian teknologia berriaz baliatzen diren enpresa gehienak kanpokoak dira. Araba, Bizkai eta Gipuzkoan, berriz, inbertsio osoaren erdia da.

Enpresen ekonomiaren munduan gero eta garrantzia handiagoa du berrikuntza teknologikoak. Euskal Herrian kontzientzia badago, baina enpresen egunerokoan eramaterako orduan alde nabarmenak antzeman daitezke herrialde batetik bestera.

2002an, EBko estatuburuek 2010erako berrikuntza eta garapeneko gastuak BPGren %3ra igotzeko konpromisoa hartu zuten: enpresa pribatuek gastu horren bi heren hartu beharko zituzten eta administrazio publikoak gainerako herena. Helburu hori betetzeko, baina, gaur egun I+Gn gastatzen dena bikoiztu egin beharko da Euskal Herrian, BPGren %1,5 ingurukoa baita I+G-ko gastua. Suedia eta Finlandia bezalako herrialdeetan, adibidez, BPGren %3,86 eta %3,48 inbertitu zuten, hurrenez hurren, I+Gean 2005ean.

Eusko Jaurlaritzak egindako apustuarekin I+Gean, BPGaren %2,25era iritsi nahi du 2010erako (2000-2004 epealdian %1,43 izan zen). 2007an, esaterako, Euskal Berrikuntza Agentzia eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Kontseiluak sortu ziren. Nafarroa Garaian badira halako agentziak ere (Cein, Anain, Navarra Innova). Nafarroa Garaian BPGren %1,67 inbertitu zen 2004an. 2008-2011 epealdian, berriz, %3ra iristea espero da. Hartarako, datozen hiru urteetan 228,96 milioi euro bideratuko ditu Nafarroako Gobernuak (inbertsio pribatua ez da zehaztu). Iparraldeko gastua EAEkoaren parekoa izan zen 2.000. urtean (BPGren %1,5 ingurukoa).

Teknologia eta Berrikuntza Planak (2008-2011): 6.945,96 milioi euro Hego Euskal Herrian

Kanpotik datozen erabakiak: adabakiak

Iparraldean eta Nafarroa Garaian badira kezkatzeko arrazoiak berrikuntza teknologikoaren alorrean. Lurralde hauetan (Euskal Herri osoan bezalaxe) I+Gean egiten den inbertsioa urria da Europako datuekin erkatuz. Gainera, teknologia berriaz baliatzen diren enpresa gehienak kanpokoak dira eta, ondorioz, ez dute ikerkuntza lurralde hauetan garatzen.

Baionako Komertzio eta Industria Ganberak emandako datuen arabera, enpresen ekoizpenak gora egiten badu ere, industriarako lur zoruaren gabezia (garestitzea) larria da Iparraldean. Bertako enpresak Bordele-Pau-Tolosa korridore industriaren eraginpean daude, eta enpresen %75 Baionan kokatzen da. Enpresa gehienek jabegoa eta kudeaketa Iparraldetik kanpo dago eta berrikuntza teknologikorako gune garrantzitsuenen erabaki


guneak ere bertatik at daude.

Parke teknologikoak zabaltzen

Araba, Bizkai eta Gipuzkoan berrikuntzan egiten den inbertsio osoaren %35 parke teknologikoetako enpresetatik dator. 2007an, Garaia Berrikuntza Gunea zabaldu zen Arrasaten (Gipuzkoa). Bi urteren buruan, Zamudioko Parke Teknologikoko instalazioak %50 handiagoak izatea agindu dute eta Miramongo industriagunean 6.000 metro koadro gehiago eraikiko dira aurtan. Miñaoren hedadura ere handitzekotan dira.

Araba, Bizkai eta Gipuzkoan egongo den inbertsioa 6.717 milioi euro izango da: Eusko jaurlaritzak 2.000 milioi euro inguru bideratuko ditu eta sektore pribatuak 3.634. Nafarroako gobernuak, aldiz, 228,96 milioi euro bideratuko ditu

I+G-KO INBERTSIOA, BPGREN EHUNEKOTAN



Iturria: Gaindegia.

Berrikuntza politikak Euskal Herrian

Anton Borja · EHUko irakaslea

Iparralde

Iparraldeko industriak 18.667 lanpostu zituen 2004an, lanpostu guztien %17,9, beraz. 942 enpresa daude gutzira, eta horietatik 37k 50 lanpostutik gora dituzte (6.500 lanpostu, denen artean). Bi enpresa multzo bereizten dira: batetik, aeronautika, metalgintza eta ekipo mekanikoak dauzkagu, industriako enpleguen %35ekin; bestetik, nekazaritzako elikagaien sektorea, lanpostuen %21ekin.

Berrikuntza eta aldaketa teknologikoa enpresa handietara mugatuta dago, aeronautikan eta antzekoen sektorean nahiz nekazaritzako elikagaien sektorean.

Azpisektore batzuetan ere badago berrikuntzarik, hala nola, defentsan, medikuntzan eta informatikan.

Nolanahi ere, Iparraldeko industria-jarduera ahul samarra da, eta arazo handiak ditu etorkizunari aurre egiteko. Ikerkuntza bi esparrutan egiten da: unibertsitatean eta antzeko erakundeetan eta estatuaren mendeko ikerkuntza-erakundeetan. Nabarmenezkoa da enpresen %57k 5 soldatapeko baino gutxiago dituztela, eta halako asko eta askotan oso berrikuntza-jardura gutxi egiten direla. Egoera hau izan arren eta ikerkuntzan eta garapenean oso baliabide gutxi erabili arren, 219 pertsona dabilta I+Geko jardueretan, zenbait erakundetan banatuta.

Industria-jardura desegituratu hauek izanik, hauxe da gure lehen tasun nagusia: jarduerak lehenbailehen berregituratzea, bai aeronautika, metalgintza eta ekipo mekanikoen esparruan, bai nekazaritzako elikagaien esparruan. Bestalde, maila instituzionalean sail berezi bat edo antzekoren bat sortu beharra dago. Sail horri baliabideak eman behar zaizkio; baliabideak banatzeko eta antolatze eskumena izan behar du; sareak eratu behar ditu sektore publikoaren, unibertsitatearen eta industria-jardueren artean; eta I+G garatzeko eta gure teknologia-politika propioa izateko baliabideak erabili behar ditu, gaur egungo joera birbideratu nahi badugu, behintzat.

Era berean, barne-logika bat garatzeko, *Garapen eta Berrikuntza Agentzia* bat sortu eta bultzatu beharra dago, enpresa alorreko eta gizarte eta ekonomia alorreko ekimenak bultzatuz, dinamiza eta kudea ditzan. Agentzia horrek ez luke Frantziako Gobernuaren mende egon beharko, Iparraldeko instituzio-sarearen barruan baizik.

Logika horri jarraiki, aldaketa sakonak lor litezke ekoizpen-egituran, eta industria-sare bat sendotu liteke epe ertainean, politika teknologikoa eta berrikuntza garatzeko dinamikak bultzatuz.

Nafarroa Garaia

XXI. mendeko lehen hamarkadan, Nafarroa Garaiko industria-ondareak gure ondare osoaren %31 eta enplegu osoaren %28 hartzen ditu. Nafarroa Garaiko enpresen %95 enpresa ertain eta txi-



kiak diren arren, industria-enpleguen %25 hartzen duten enpresa handi batzuk dauzkagu gurean. Enpresa handi horietako 20tan atzeritarren esku dago kapitalaren zati nagusia. Enpresa multinazionalak ere oso errotuta daude Nafarroa Garaian: horrelako 112 enpresa zeuden 2005ean.

Hauek dira Nafarroa Garaiko manufaktura-sektore garrantzitsuenak: industria metalikoak, elikagaiak eta garraiorako materiala. Teknologia-maila txiki eta ertaineko eta eskari ertaineko industriak oso ugariak dira gurean.

Berrikuntza-politikari dagokionez, azken urteetan aldaketa sakonak izan ditugu. I+Gko gastua Nafarroa Garaiko BPGren %0,9 izatetik %1,67ra hazi da 2000tik hona, Espainiako estatukoaren batez bestekoaren eta EAEko gastuaren gainetik. Teknologia eman zaion garrantziaren adibide garbiak dira, esate bate-



rako, gaur egun indarrean dauden hiru plan teknologikoak. Lehen eta bigarren plan teknologikoek (2000-2003 eta 2004-2007, hurrenez hurren) bultzada handia eman zieten berrikuntzari eta garapen teknologikoari, eta gastu handia egin zen alor horretan.

Nafarroako Hirugarren Plan Teknologikoa (2008-2011) aztertuko dugu orain. **228,7 M** euroko aurrekontua onartu da Plan horretarako, eta lau ardatzetan antolatuta dago:

NAFARROA GARAIO HIRUGARREN PLAN TEKNOLOGIKOAK (2008-2011) AURREKONTUAK	
Berrikuntza ardatza	129,5 M
Lankidetzaraz ardatza	73,4 M
Hezkuntza ardatza	16,3 M
Nazioartera zabaltzeko ardatza	7 M
Zabalkundera lanak	2,5 M
GUZTIRA	228,7 M



Gorago esan dugunez, diru asko bideratu da Plan honetarako, baina, halere, ohar batzuk egin behar ditugu hemen.

- Ikuspegi liberala da nagusi Planean: sektore publikoak oso pisu txikia du eta enpresei ematen zaie garrantzi handiena al-daketa teknologikoa sustatzeko.

- Planean ez da lurralde osoa dinamizatuko lukeen jardue-ra sistemikorik zehaztu.

- Berrikuntza teknologikoa bultzatzen dira (oinarri teknolo-gikoa duten enpresak bultzatzeari emanez garrantzia), enpresen antolakuntzan behar den berrikuntza ia aipatu ere egin gabe.

- Laguntza gutxi ematen zaie enpresa txiki eta ertainei eta teknologia gutxi eta ertaineko enpresei, nahiz eta halakoxeak izan Nafarroa Garaiko enpresa gehien-gehienak.

- *Klusterra* bultzatzeko jarduerak pisu txikia dute.

- Hezkuntza. Nabarmentzekoa da etengabeko hezkuntza ai-patu ere ez egitea, Planaren osagai estrategikoen artean. Ja-kintzaren ekonomia bultzatu nahi izanez gero, ikuspegi estrate-gikoa behar da etengabeko prestakuntzarako, bai zuzendari nahiz teknikarien artean, bai langile guztien artean.

- Ikuspegi murrizta. Oraingo Planak joera teknologikoa du, baina ez du loturarik Zientzia Planarekin. Akats larri samarra da, eta dagoen deskoordinazioa salatzen du.


- *Nafarroako Lurralde Estrategia* ere ez da aipatu ere egiten, eta Planak ez du inolako loturarik NLE horrekin. Horrek ikuspegi orokorrik eta sinergiarik ez dagoela erakusten digu.

Nolanahi ere, Nafarroa Garaiko eragile ekonomiko eta so-zialen artean egon den adostasunik eza (lortzeko ahaleginik eza) da hemen bereziki azpimarratu behar duguna, emaitza ez sis-temikoak ekartzen dituelako horrek.

Euskal Autonomia Erkidegoa

Manufaktura-industriek EAEko ondare osoaren %29,4 eta en-pleguaren %25,4 hartzen dute. I+Gra bideratutako ahalegina %1,4-1,5 bitartekoa izan da XXI. mendeko lehen hamarkadan, Europako Batasuneko batez bestekoa baino askoz txikiagoa, be-raz. Berrikuntzaren alorrean, EAE 55. dago Europako 203 erre-gioek osatutako rankinean.

LANGILEEN BANAKETA EAE-KO PARKE TEKNOLOGIKOETAN



Iturria: EAE-ko Parke Teknologikoen Sarea

1980ko hamarkadaz geroztik, industria-politikako planak ga-ratu izan dira, eta halakoetan politika teknologikoko neurriak ezarri dira.

2010eko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Plana (2010 ZTBP) aztertuko dugu jarraian. 6.714 M euroko aurrekon-tua du: finantzazio publikoa 2.6718 M eurokoa izango da, eta fi-nantzazio pribatua 3.634 M eurokoa. Ikusten denez, plan han-dia da hau, bai diru asko inbertituko delako bertan, bai asmo handiak dituelako: I+Gko gastua EAEko BPGren %2,25 izatea 2010erako.

Gaur egungo egoera abiapuntutzat hartuta, dekalogo es-trategiko bat prestatu da. Dekalogo horretan, alderdi hauek nar-barmentzen dira:

- gaur egungo enpresa-oinarriaren lehiakortasuna
- garatzen ari diren sektoreetara dibertsifikatu beharra
- unibertsitatearen protagonismoa jakintza sortzeko garaian
- garapen iraunkorra / berrikuntza soziala

Planean jasotako helburu eta xedeak lortzeko, zenbait pro-grama prestatu dira:

- INNOVA LANKIDETZA. EAEko Berrikuntza Agentzia behato-ki sektorialen jarduerak koordinatzeaz arduratuko da.

-INNOVA-ENPRESA. Aurreko bideari jarraitzen dio, baina banakako enpresetan.

-Sektoreak dibertsifikatzeko jarduera-programak.

-Zientzia-politikarako jarduera-programak. Zenbait ekimen (BERC -Basque Excellence Research Centres- eta beste).

2010 ZTBPr buruz ohar hauek egin nahi ditugu.

- EAEko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Kontseiluaren eta EAEko Berrikuntzarako Agentziaren koordinazioa berantolatatu arren, eragile sozial eta ekonomikoek oso pisu txikia dute. Adibidez, ez dago CONFEBASK eta sindikatuak Planean sartzeko asmorik.

- Kezkagarria da, bestalde, EAEko unibertsitate-sistemak lotura zuzenik ez izatea ez Planarekin, ez 2010 ZTBPrekin, unibertsitateak bere 2010erako Unibertsitate Plan berezia izan arren.

- Teknologia-zentroek dirua jarri behar dute zientzia-ikeruntzarako, nahiz eta teknologiaren alorrean jardun gehienbat eta unibertsitateko sailekin harremana izan bereziki.

- Garapen iraunkorra. 2010 ZTBPre arabera, *eko-berrikuntzaren bidez ingurumenaren oreka lortzea da eszenategi berri honetako funtsezko ildoetako bat*. Hala ere, ez zaio ikuspegi sistemiko eta horizontalik ematen helburu horri, Europar Batasunean egiten den moduan, eta garatu beharreko beste sektore bat bezala hartzen da, besterik gabe.

- Prestakuntza. Teknikari eta ikerlarien jakintza eguneratzeko neurriak proposatzen dira. Dena den, langileen etengabeko prestakuntzak ikuspegi estrategikoa eskatzen du, eta berrikuntzaren parametro estrategikoak hortxe kokatzen dira. Norabide aldaketa sakona behar da, beraz.

Berrikuntza eta aldaketa teknologikoa enpresa handietara mugatuta dago; aeronautika eta nekazaritza elikagaien sektorerara

- Ez da jarduera-programa guztien ikuspegi orokorrik ematen, ez eta programa horietan erabiliko diren finantza-baliabideen sailkapenik ere.

- Ez da argi gelditzen 6.714 M euroko aurrekontutik finantzazio pribatua %54koa izango dela, eta finantzazio publikoa, berriz, 2.718 M eurokoa. Ez da argi gelditzen enpresak zenbateraino behartu/baldintzatu daitezkeen 2010 ZTBPerako behar den diru pribatua jartzeko.

Dena den, garrantzitsua da Planari jarraipena egiteko eta Plana ebaluatzeke bitartekoak finkatzea. Lortu nahi diren helburuak ondo zehaztu behar dira, epe zehatzak finkatuz eta lortpen-mailak neurtuz.

Azken oharrak

Gure herrian teknologia eta berrikuntzarako politiketan joera desberdinak daudela ikusita, gogoeta hau egitea komeni da: Zein neurri hartu behar dira, epe labur eta ertainean, Euskal Herri osorako gure teknologia eta berrikuntzako politika izateko? Bateratu al daitezke hiru lurralde-eremuetako jarduerak? Euskal Herriko eragile sozial, ekonomiko eta instituzionalek dute hitza orain.



Bi norabideko mugikortasun eredua

Hegoaldean errepide berriak eraikitzeko egitasmoak bultzatu diren bitartean Akitaniako Kontseilu Nagusiak Baiona-Iruñea errepidea ez egitea erabaki du mugikortasun eredu berri baten bila aldaketa klimatikoari aurre egiteko.

Euskal Herriko errepide nagusiek trafiko dentsitate oso altua bizi dute. Hiriburu eta lantoki gune nagusien inguruan bizi den arazoari Penintsula eta Europaren arteko pasagune nagusietako bat izateak dakarren nazioarteko trafikoa lotzen zaio. Arazo horri aurre egiteko errezeta nagusia errepide berriak eraikitzea izan da orain arte. Hala eta guztiz ere, hemen eraikitzen ari diren errepide berriak dagoeneko kolapsoaren mehatxupean daude.

Politika desberdinak Euskal Herrian

François Fillon-en gobernuak aldaketa klimatikoaren aurrean eta garraio pribatuaren hazkundera makaltzeko asmoz, errepide berrietan egin beharreko lanak eta inbertsioak etetea erabaki du. Ondorioz, Euskal Herrian Baiona-Iruñea errepidearen eraikuntza bertan behera gelditu da. Hegoaldean, berriz, errepide berriak eraikitzeko egitasmo ugari dago bidean. Jarrera hauek finkatuz gero, etorkizunean Euskal Herrian bi mugikortasun eredu desberdinen sorrera ikusiko dugu, bata nagusiki garraio pribatuan oinarritua (Hegoaldekoa) eta bestea, badirudi, garraio kolektiboaren aldeko apustua egiten duena (Iparraldekoa).

Proiektuak

Eibar-Gasteiz autobidea. Eibar-Gasteiz autobidea izan da proiekturik nabarmenena 2007an. AP-1 izendatu duten autobidea 2008. urtean zehar zabalduko dute Gipuzkoako zenbait zatitan izandako arazoengatik. Arabako zatiak ere atzerapenarekin irekiko dituzte. Arabako Foru Aldundiak 90,5 milioi euroko mailegua ordainduko du urte hasieran.

Bideko Autobidea. Iruñea eta Logroño (Espainia) lotzen dituen A-12 Bideko Autobidea estreinatu berriak 1.157 milioi euroko ordainsaria izango du 25 urtean. Errepide honek Nafarroa Garaiko mendebaldea eta Iruñea lotuko ditu orain arte ezinezkoa zirudien denbora epean.

Iruñea-Baiona autobidea. Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Nagusiak proiektu honen Iparraldeko zatia bertan behera uztea erabaki du. Bidenabar, Zuberoa eta Nafarroa Behereko hainbat eragile proiektuaren aurka azaldu dira, lurraldeen kohesioa baino barnealdeko herrien "desertifikazioa" sorraraziko duelakoan.


A-63. Lapurdin eztabaida ugari sortu du, halaber, A-63 autobideko zabaltze lanak. Izan ere, zabaltzeak, kamioen trafikoen ugaritzea sorraraziko duela salatu dute autobideko erabiltzaileek. Itsasoko autobideak, A-63, N-1 eta A-8ako trafikoa arinduko dutela agindu dute instituzioek, nahiz eta hurrengo urtetarako kamioi trafikoa are gehiago handitzea espero den.



Beasain-Durango korridorea. Bizkaia eta Gipuzkoa lotuko dituen Beasain-Durango korridorearen Gipuzkoako bigarren zatiaren (Zumarraga-Urretxu-Legazpia saihesbidearen) lanak aurtien hasiko dira, hala iragarri zuen 2007ko apirilean Gipuzkoako Foru Aldundiak. 200 milioi euroko inbertsioa egingo du Diputazioak lehen fase horretan.

A-8 autobidea. A-8 autobideko gehiegizko erabilera murrizteko Donostia eta Bilbo hegoaldeko saihesbideko lanak abian jarri dituzte Gipuzkoa eta Bizkaiko diputazioek. Aritzetatik Donostiako Urumeako lotuneraino joango den zatiak 124 milioi euroko aurrekontua du. Bilboko Supersur saihesbidearen lehen fasea 2007ko maiatzean hasi zen, eta zati horrek 650 milioi euroko aurrekontua izango du.

ONDASUN ETA ZERBITZUEN FLUXUA MILIOI EUROTAN (2005)



Iturria: www.c-interreg.es

Hainbeste autobide, autobia, saihesbide, ingurabide...

Helena Franco · EHUko irakaslea eta garraio azpiegituretan doktorea

Zergatik? Zertarako?

Mundu mailako dimentsioa duen eredu ekonomiko-produktiboaren funtzionaltasuna bermatzeko funtsezkoak dira ahalmen handiko azpiegitureak

1) Globalizatorako joera bizkortu egin da azken hamarkadetan. Enpresa Transnazionalak aitzindari, eskala handiko produkzioa eta banaketa hedatzen eta finkatzen ari da. Pertsonen eta batez ere merkantziek gero eta distantzia handiagoak egin behar izaten dituzte. Garraio eskari berriei buruzko eztanda orokor hau azpiegitura handien bidez ase behar da (errepidekoak, portu-azpiegitureak, aireportukoak...) mundu mailako dimentsioa duen produkzio-eredu baten funtzionamendua ahalbidetu dezaten.

Urrutira begiratu gabe, egunero Irundik Gipuzkoa eta Lapurdi arteko muga zeharkatzen dute 10.000 kamioiak dira horren adierazgarri.

2) Ekonomia global honetan mendebaldeko herrialdeei egokitu zaien funtzio nagusia honakoa da: berrikuntzarako eta kontrolerako gune izatearena. Hiri-ingurune aurreratuek (metropoliak) izango dute posizio pribilegiatuena; izan ere hiri nagusietan kokatuak baitaude gaur egun jarduera estrategiko gisa azaldu zaizkigunak, alegia, finantza-jarduerak, produkzio berri-tzatzaileak eta sistema osoaren antolaketa eta kudeaketan giltzarri diren zerbitzu aurreratuek.

Testuinguru horretan kokatu behar ditugu azken bi hamarkadetan Bilbo Metropolitanarra bultzatu asmoz egin diren hainbat jarduketak: portuaren eta aireportuaren modernizazio eta zabalte lanak, nazioarteko errepide-konexioen hobekuntza (Eibar-Gasteiz autobidea edota A-8 eta A-68aren arteko lotura, adibidez), edo AHT bera ere.

3) Esandako guztiak ondorio nabarmenak izango ditu azpiegituren diseinuan (eta hortaz, lurraldeen arteko harremanen konfigurazioan): garapen handiko lurraldeak abiadura handiz elkarlotzeko azpiegituretara (airezko, errepidezko edota trenzkoak, baita telekomunikaziozkoak ere) eta, orobat, metropoli handien barne mugikortasuna ziurtatzeko azpiegituretara zuzenduko dira ahaleginak zein baliabideak, nazioartekoa/tokikoa sustatzeko joera horretan jarduera ekonomikoa eremu metropolitarretan are gehiago kontzentratzeko aukerak indartzuz.

Gaur egungo lurralde-eredu kontzentratu eta polarizatuek merkantzien zein pertsonen mugikortasun beharrak area-gotzen dituzte

Merkatuko indarren dinamikek bultzaturik eta azpiegitura-politiken laguntza ordainezinaz, hazkunde ekonomikoak, hots inbertsioak eta jarduera produktiboak, hiri-aglomerazio handien inguruan kontzentratuz josten du; eta, halaber, enplegua



eta ondasun edota zerbitzuen eskaintza. Kontzentrazio gehikor horrek herritarrak eremu horietara erakartzen ditu, batzuek bizilekua bertan finkatuko dute eta beste asko eguneroko joan-etorrian ibiliko dira.

Aldi berean erregioko beste toki asko hazkunde eta garapen gune horietatik gero eta urrunago geratzen doaz, eta horietako asko lohiri nahiz ibilbide luzeko trafikoaren igaro leku soil bilakatuz.

Baina bestalde hiri-aglomerazioen barne gailentzen ari den lurralde antolamenduko eredu bera ere bada urruntasun sortzaile eta mugikortasun motorizatuaren sustatzaile. Besteak beste lurzoruaren erabileraren gehiegizko espezializazioan oinarritzen delako, produkzio, kontsumo, aisia edota etxebizitza jarduerak elkarrengandik urrun eta bereizirik dauden tokietan kokatuz.

Errepideko garraioa da garraio-sistemaren bizkarrezurra

Europako Batasunaren gainerakoan bezala, gure herrian ere merkantzien trafikoan errepidea agertzen zaigu jaun eta jabe, eta are gehiago Europako batezbestekoaren oso gainetik, gurean portuen eta trenbidearen partaidetzak askoz txikiagoak baitira. Horrela, EBn salgaien %44 errepidez garraiatzen da, EAEn %81 eta NFEen %98raino iritsiz.

Bidaia-errepidearen morroi bizi gara, batez ere gure motordun joan-etorrietan ibilgailu pribatuarekiko dugun menpekotasun ikaragarria dela medio (EAEn motordun desplazamenduen %67 automobil pribatuaren egiten ditugu; Nafarroan Iruñeko eskualdean %65 eta Foru Erkidegoaren enparauan %88; iparraldeko kostaldean %80).

Desoreka nabarmen hori ez da kasualitate hutsa, hamarkadetan zehar errepidea lehenetsi duten azpiegitura-politika batzuen ondorio zuzena baizik.

Errepideko azpiegiturek gainerako moduen eta, bereziki, trenbidearen aurrean duen abantaila nagusia honakoa da: askoz ere potentzialtasun egituratzaile handiagoa duela, lurralde osoan zehar irisgarritasuna bermatzeko ahalmenarekin batera doana. Horregatik inork ez du ukatuko zenbait erabilera eta funtzioetarako ordezkaria ezina dela; baina hortik garraio-sistema osoa errepidearen gain oinarrituz izugarriko tartea dago. Eta azken aukera hau, gainera, zailtasunez eta arazoz josituta azaltzen da, sistemaren funtzionaltasunaren ikuspegitik beretik ere.

Errepideak txiki geratzen zaizkigu behin eta berriz

Behin bide-azpiegitura jada nahikoa garatuta dagonenean, edozein toki bilakatu beharko litzateke, printzipioz, irisgarri. Haatik, behin eta berriz ikusten ari gara etengabe handitzen eta za-



baltzen ari den errepide-sarea berriro ere eskas geratzen dela. Alegia, kongestioa agertzen zaigula gure errepideetan.

Ahalmen gehikuntza jarraituen gainera kongestioa konpontzeko ezintasun hori azaldu nahian bi aldetara begiratu behar dugu:

a) merkantzien errepideko garraioaren hazkunde erritmo neurrigabea. XX. mendean zehar eta gaur arte munduko merkataritzaren hazkunde munduko produkzioak izan duenaren oso gainera ibili da; Munduko Merkataritza Erakundeak berriki adierazi duenez, 1950az geroztik lehenengoak bider 27 egin du, produkzioaren hazkunde-erritmoaren halako hiru.

Ez dirudi erraza denik joera horri buelta ematea, bederen gaur egungo eredu ekonomikoaren funtsak aldatzen ez diren bitartean. Hazkunde ekonomiko, sistema kapitalistarentzat laga ezinezko helburu, merkatuaren hedapenarekin erabat loturik dago eta geroz eta gehiago produzitu eta elkartrukatu behar horrek garraioaren hazkunde dakar halaberharrez. Koordinatu horietan gehienez ere hazkunde ekonomiko eta errepideko garraioa disoziatzearen bidez jotzen duten proposamenek izango lukete tokirik, salgaien mugimenduak beste garraio bideetarantz bideratuz.

b) Automobil pribatuaren erabilerari dagokionez, gero eta erabiltzaile gehiago daukagu eta gainera gero eta batez besteko distantzia handiagoak egiten dira. Hori guztia garraio-politikak eta lurraldearen antolamendurako politikak elkarrekin eragindako dinamika zoro batean.

Ezin ahaztu, bestalde, gure gizartean automobilak konnotazio positibo asko dituela (prestigioa, estatusa, askatasuna, erosotasuna...), eta horrek are zailagoa egiten duela ibilgailu pribatutik garraio publikora pasatzea, eta ondorioz trafiko hori ez dela automatikoki desagertzen ezta garraio kolektibo onak egonik ere.

Gure agintariek errepide gehiago eraikitzen dizkigute soluzio bidea hori delakoan

Gure administrazioek kongestioaren aurrean proposatzen dituzten iraildoak: sarean suertatzen diren kolapso guneein erantzuteko errepideen eskaintza handitzea ahalmen handiko bide gehiago eraikiz edota daudenen ahalmena handituz (hirugarren erriak eta gisakoak). Azken urte hauetako jarduketak eta proiektu gehienak iraildo horretan doaz, besteak beste: A-8 zein A-63 autobideen zabaltze lanak, ipar-hegoa ardatza indartzeko Eibar-Gasteiz autobidea, eta horiekin batera Bilbo Metropolitarraren irisgarritasunaren hobekuntzarekin loturikoak (Txorierriko korridorea edota Supersur hegoaldeko saihesbidea) eta Donostialdean bigarren ingurabidea.

Baina konponbide behar lukeen horrek ez du arazoa konpontzen. Azpiegitura berriak eraikitzeak trafiko handiagora sortzen du eta puntu kritikoak lurraldeko toki batzuetatik bestera desplazatu besterik ez ditu egiten. Izan ere, bide-ahalmena handitzen denean kongestioa hasieran eta aldi labur batez murrizten bada ere, zirkulaziorako baldintza berriek azpiegitura berria ere beteko duten bidai gehiago eragingo baitituzte.

Gainera aukera horrek badauzka beste zalantza asko. Errepidean oinarritutako sistema hori iraunarazteari ingurumen ikus-



Eskala handiko produkzioa eta banaketa hedatzen ari da; horren adierazgarri egunero Irundik, Gipuzkoa eta Lapurdiko muga zeharkatzen duten 10.000 kamioiak

pegitik zein ikuspegi sozialetik egin dakizkiokeen kritikez gain ekimen horien behar finantzarioen inguruak ere erantsi nahiko genituzke.

Milioika euroko kostua duten azpiegitura hauek finantzatzeko dirua iturri jakin batzuetatik ateratzen da. Gehienetan aurrekontu publikoetatik, bestelako ekinbide posibleen kalterako. Baina aurrekontuek ere muga nabarmenak dituztenez sarritan beste formula batzuk bilatu behar dira; azken aldian gehien entzuten den aukera ordainsariak ugaritzearena da. Gaiari sakon heldu gabe, hausnarketarako bi hitz: ordainsariak benetan oso altuak izan beharko dute, bestela ez dira eraginkorrak izango; eta bestalde ordainsariei esker bildutako dirua autobide eta autobia gehiago eraikitzeko erabiltzeak mesede gutxi egingo lioke garraio bideen arteko banaketa orekatuagoa lortzeko ahaleginari.

Konponbidea, hortaz, ildo erabat desberdin batetik etorri beharko da

Batzuk jadanik hasiak dira azpiegitura gutxitu beharra planteatzen, kongestioa arintzeko soluzio gisa eta bide batez bestelako garraio-eredu baterako pixkanakako urratsak ematen hasteko. Nik, momentuz, jarrera zuhurragoa eta ondorioz ez horren ausarta hartuz honakoa proposatuko nuke: ez dezagun autobia ez autobide berririk eraiki ezta daudenen ahalmen gehikuntzarik egin ere (nolabait Iruñea-Baiona autobidearen kasuan gertatu denaren ildotik). Dauzkagunak aski zaizkigu, zaindu ditzagun eta baldintza egokietan mantendu; eta, aldi berean, azpiegitura-politika errepidea baino efizienteagoak diren garraio bideen zerbitzura jar dezagun, bereziki trenbidearen aldera.

Horrekin batera eskaria kudeatzeko benetako politika bat ere jarri beharko litzateke martxan, merkantzien trafikoan portuek eta trenbideak duten partaidetza nabarmenki handitu beharko lukeena eta bidaiariak garraio publikora joanaraziko litzuzkeena. Kongestioa bera ere aliatu ona izango da helburu hauek lortzeko begira.

Edonola ere, argi izan dezagun: garraioaren arazoak ez du benetako irtenbiderik izango oinarria errotik aldatzen ez bada, hots, garraio beharrak murriztuko litzuzketen kontsumo eta produkzio eredu eta lurraldearen erabilera orekatuagoan oinarrituko litzatekeen alternatiba berri baten alde egiten ez dugun bitartean.

Etxebizitza hutsek eskubidea ezin bete

Etxebizitza sozial gehiago eraiki eta hutsik dauden etxebizitzak alokatu. Administrazioen aburuz, biak ala biak beharrezkoak dira etxebizitza eskubidea asetzeko. Baina, zer dira etxebizitza hutsak?

Euskal Herriko zatiketa administratiboak agerian uzten du etxebizitza hutsa zer den zehazterako orduan herrialde batetik bestera dauden aldeak. Eusko Jaurlaritzaren aburuz, etxe hutsa da jabeak urtebetean erabili ez duena: bigarren etxeak edo urtean egun batzuetan erabiltzen direnak ez dira etxebizitza hutsak Jaurlaritzaren irudikoz. Iparraldean, berriz, Etxebizitzaren Aldeko Engaiamendu Nazionala deritzon legeak Herriko Etxeen esku uzten du bost urte baino gehiago hutsik daramatzaten etxebizitzetara tasa bat ezartzea.

Euskal Herrian etxebizitza hutsen gainean zerga bat ezarri duen Udal bakarra da Hendaia (400 etxeri 2007ko urtarrilean)

Iparraldean bezala, Nafarroa Garaian ere badago etxebizitza hutsen inguruko lege bat (1995). Lege honek dio Udalek etxe hutsen tasa bat ezartzeko eskumena dutela. Legea, ordea, ez da inoiz egikaritu, etxebizitza hutsa zer den ez baita zehazten bertan. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan ez da halako tasarik existitzen. Alabaina, etxe hutsen jabeek eguneko bederatzi euro kobratzeko nahia adierazi zuen Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailak 2007an baina legea oraindik eztabaidatu gabe dago.

Eskubide unibertsala, arau partikularra

2007ko otsailean Frantziako Etxebizitzaren Legea onartu zen, modu honetan etxebizitza eskubidea legean islatzea lortu du Frantziako Gobernuak lehen aldiz. Hala, etxebizitza lortzeko laguntza ekonomiko eta juridikoak jasotzen dira araudi berrian. Alabaina, Iparraldeko eragileek uzkur begiratzen diote legeari. Etxe huts eta bigarren etxebizitzaren alokairu sozial baten aldeko apustua egin behar dela irizten diote. Eragileen aburuz, *larrialdian hartutako neurri bat* da legea: *sinbolikoa*. Legean ez baita etxebizitza hutsen inguruan inolako zehaztapenik egiten, ezta gazteriaren egoeraz ere.

Etxebizitza eskubidea legeztatua egon arren, Iparraldean hainbat eta hainbat dira beraien jatorrizko herrietatik alde egin behar duten biztanleak. Hori dela eta, herri mailako hainbat ekimen sortu dira. 2007 urtean, esaterako, Etxalde elkarteak aurkeztu zen. Elkarte honek hainbat erai-kin zaharberritu eta prezio duin

Gurasoen etxea utzi eta karrikan bizi behar dugu etxebizitza eskubidea izateko? Iñaki Berhokoirigoin, Euskaldun Gazteriaren taldeko kidea



Elkartzen-ek 2007 urtean zabaldu duen txostenaren arabera, normalean erabiltzen ez diren etxebizitzaren kopurua (255.263) merkatuan jarrita, nahikoa izango litzateke etxebizitza beharra asetzeko (100.000)

batean jartzen ditu alokairuan edo salgai. Euskaldun Gazteriak ere halako ekimen bat jarri du martxan Donibane Garazin.

Maizterrak, zalantzan

Maizterra eta jabearen arteko bitartekaritza lanerako bi programa daude Hego Euskal Herrian. Hauek, 3.250 etxebizitza huts alokatzea lortu dituzte: Bizigune (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan; 3.000 etxe huts) eta Vinsa (Nafarroa Garaian; 250 etxe huts 5 urtean).

EUSKAL HERRIKO ETXEBIZITZA HUTSEN KOPURUA, 2001



Euskal Herriko etxebizitza hutsen eta guztizko etxebizitza kopurua:
 - 255.263 etxebizitza huts.
 - 1.297.038 etxebizitza guztira.

Iturria: www.datutalaia.net

Wir bleiben alle

Ion Andoni del Amo · EHUko irakaslea
Txema Mendibil · Ogasun ikusatzailera

Mundu-mailako inbertsio-fluxu kontrolaezinen gatibu bihurtu dira hiriak, finantzen eta higiezin sektoreetan oso bizia izanik inbertsio horiek. Inbertsio horien gehiegizko dimentsionamenduak eta izaera espekulatzailak higiezin burbuila eta ondorengo krisia eragin zituen AEBetan eta Erresuma Batuan 1990eko hamarkadan, eta gaur egun Euskal Herrian gertatzen ari dena horren ondorio dela esan genezake.

Dena den, mundu-mailako joerak ez dira saihestezinak. Bakoitzak bere herrian joera horiek indartzea nahiz orekatzea dauka. Euskal Herriko instituzio nagusiak ez dira joera horiek orekatzen saiatu, denbora luzean. Liberalizazioa eta malgutasuna izan dira erakundeon errezeta, eta hazkunde-koalizioak sortzea eragin du horrek: eraikuntza-enpresen eta bankuen espekulazioari udalena eta lur nahiz etxebizitzaren jabeena gehitu zaie. Udalen kasuan, finantzazio-iturritzat erabili dute lurzorua, eraikuntza-zergak ezarri, lur publikoak enkantera atereaz, lur-ondarea erabili gabe utziz... Azkenerako, irabazi gehien ematen duen negozioa bihurtu da hirigintza: lurrek sekulako balioa hartu dute, gainbalio ikaragarriak sortu dira eta izugarri hondatu da ingurumena.

Bereziki nabarmentzekoa da hemen etxebizitzari zuzenbidean eta zergen alorrean ematen zaien tratamendua, esku-bidea izan beharrean *inbertsioa* bihurtzea ekarri duten egiturazko baldintzak sortu dituelako tratamendu horrek. Euskal Herriko erakundeak zerga-erreformak gero eta atzerakoiagoak onartuz joan dira, erabilera espekulatzailaren mesedetan, eta horrek ondorio negargarriak izan ditu errenten banaketan eta ingurumenean. Beste aktibo batzuei baino tratamendu hobea ematen zaie etxebizitzari, bigarren etxebizitzak barne. Zerga-politikan lehentasuna ematen zaie kenkariei gastu zuzenaren aurretik eta, horrez gain, erosketa lehenesten da alokairuaren aurretik. Horrek diru-sarrerak gutxitzea dakar eta, horrekin, neurri publikoak hartzeko ahalmena murrizten da, bestela, neurri horiek malguagoak eta pertsonalatuagoak izan litezkeen arren. PFEZak, batetik, 2007an EAEn egindako zerga-erreformak, bestetik, eta lehenago Nafarroako Foru Erkidegoan egindakoak, azkenik, egoera okertu



bestirik ez dute egin: alokairuak kapitalerenta bezala kotizatzen hasi dira, lan-errentak baino tasa txikiagoan, eta oportetako eta erabili gabeko etxebizitzak errentan egotzi beharra ezabatu da.

Botere publikoek bizkarra ematen diote etxebizitzaren arazoari, esparru pribatuaren esku eta merkatuaren eta familien ardurapean utziz. *Hiria egitea* inbertsioak eta turistak erakarriko dituzten proiektu erraldoiak egitea da agintariontzat. Baina *hiria egiteko* ezinbestekoa da lehiakortasunaz gain iraunkortasuna eta gizarte-kohesioa egotea, eta, horretarako, funtsezkoa da erakunde publikoek neurri egoikiak hartzea etxebizitzaren alorrean.

Arazoa

Euskal Herriko higiezin burbuila prozesu orokor batzuei jarraiki sortu da, eta prozesu horiek larriagotu ere egiten ditu. Ezagunak dira horren ondorioak: lurra espekulatzeko gordetzea, prezioen igoera handia, jabetzarekiko lotura, etxebizitza eskuratzeko zailtasunak, pobrezia ezkatutua (beren gisako etxebizitzarik eskuratu ezin dutenak, diru-sarrera gutxiegi dutelako), gehiegizko zorrak, etxebizitza hutsak, ingurumena txikitzea, higieziinei lotutako lobby-a sortzea, genero-bazterketa emakumeen lanbaldintza kaskarragoen ondorioz, gutxiengoak segregatzeko joera, higieziinei lotutako mobbing-a eta ekimenak bultzatzea eta malgutasunez aritzea galarazten duen egiturazko zurruntasuna.

Babes ofizialeko etxeak konponbidea ote?

Azken urteetan, babes ofizialeko etxeak saltzeko programak indartu dituzte erakundeek, Forden, Keynesen eta Le Corbusieren estiloko hirigintzaren tresna zaharkituaren bidetik. Diru-sarrera handi samarrak dituztenei bakarrik zuzentzen zaie martxan jarritako eredu berria, eta alde batera uzten ditu oso sarrera txikiak dituztenak. Jabetzari lotutako eskeman oinarritzen da, gainera. EAeko Lurzoruaren Legea higieziinei lotutako lobby-aren eta Eudelen presio handiei erantzunez onartu zen, eta aipatu dugun eredu horixe errepikatzen du: ez ditu jabetza/alokairu ratioak zuzentzen eta etxebizitza tasatuak bultzatzen ditu gehien-



Euskal Herriko erakundeak zerga-erreforma geroz eta atzerakoiagoak onartuz joan dira, erabilera espekulatzailaren mesedetan

Zuzenbidean etxebizitza izateko eskubidea aipatzen da, funtsezko oinarri bat dela esanez. Baina eskubide hori gauzatzeko, esku-hartze publiko eta zibil egoki eta sendoa behar da, merkatuaren logikatik kanpo

bat. Etxebizitza tasatu horiek garestiagoak dira babes ofizialekoak baino (1,7 aldiz garestiagoak, ggb.), eta irabazi handiagoak ematen dizkie esku hartzen duten guztiei.

Eredu horrek, ordea, ez du arazoa konpontzen, esparru neoliberalaren barruan hartutako neurri aringarri, partzial eta mugatu bat besterik ez delako. Ez dio benetako arazoari heltzen, lurzorua prezioari, alegia; ez ditu ez jabetzaren kultura, ez etxebizitza inbertsiotzat jotzen duen kultura aldarazten; eta ez du behar adinako finantzaziorik. Horrenbestez, ez ditu arazo nagusiak konpontzen —zurruntasuna, jabetzarekiko lotura, bazterketa, segregazioa eta iraunkortasuna—, eta arazo horietako batzuk areagotu ere egiten ditu. Aurreko guztiaz gain, dirigismo estatista onartezina dakar, merkatu segmentatuak sortzen ditu eta konparazioko bidegabekeriak eragiten ditu, inolako justifikazio ekonomikorik gabe.

Bestelako etxebizitza-estrategia batzuen inguruko oharrak

Nekez sortuko dugu Euskal Herri moderno, bizi, demokratiko eta parte-hartzean oinarritutakorik, bakoitzak bere bizi-proiek-

tua sortu, bere burua eratu eta bere bidea aukeratu ahal izateko beharrezkoak diren autonomia eta askatasuna ekarriko dituzten gutxieneko baldintza materialak ziurtatzen ez baditugu. Zuzenbidean etxebizitza izateko eskubidea aipatzen da, funtsezko oinarri bat dela esanez. Baina eskubide hori gauzatzeko, esku-hartze publiko eta zibil egoki eta sendoa behar da, merkatuaren logikatik kanpo. Indarrean dauden logika batzuk ez dira dauden bakarrak, nagusitu direnak baizik.

Lurzoruaren gaineko neurriak. Neurri zorrotzak hartu behar dira lurzorua inguruan, nazionalizazioaren antzeko emaitza ekonomikoak lortzeko modukoak, baina horrek ekarriko lukeen oztopo burokratikorik gabekoak. Eragile politikoei dagokie herriak planifikatzea eta herrien berezko hazkundera erabakitzea, parte-hartzean oinarritutako prozesu irekiak erabiliz, eta hirigintza-agenteak eta antzeko irudiak ezabatuz. Botere publikoek neurriak hartzeko ahalmena dute, eta ekimenak eta erabakiak publikoak direla ziurtatu eta lurzorua espekulaziorako gordetzen dela galarazi behar dute. Hong Kongi eta Singapurri buruzko azterketetan ikusienez (Castells, Lee Goh eta Kwok), lurzorua modu publiko eta sozialean kudeatzeak ez du lehia-kortasuna galarazten, alderantziz baizik. Hong Kongeko lurzoru guztia publikoa da, eta Gobernuak alokatu egiten du hirigintzako helburuen arabera: etxebizitza publikoetarako dohainik eta oso garesti negozio-zentro handientzat. Singapurren, berriz, hirigintza planifikatzeko sistema zorrotza dute. Sistema horrek lurzorua erabilera kontrolatzen du, eta Gobernuak operadore nagusia. Marinaledan (Espainia), Udalak lurra uzten ditu etxebizitzak eraikitzeko, espekulaziorako erabiliko ez dela ziurtatzen duten baldintzetan.

Zerga-politika. Zergen inguruko neurri jakin batzuk ezarriz, etxebizitzaren prezioa merkatzea eta etxebizitzak espekulatzeko



Etxebizitza eskuratzeko arazoari erantzuteko bide bakarra alokairuko etxebizitzaren parke publiko handia osatzea da

ko edukitzea garestitu liteke. Hartu litezkeen neurrien zenbait adibide: merkataritza sozietateei etxebizitzaren jabe izatea debekatzea; bigarren etxebizitzaren Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga (OHZ) hirukoiztea gutxienez, eta alokairuei PFEZko tasa orokorra ezartzea; hutsik dauden edo oporretako etxebizitzengatik diru-sarrerak egozte PFEZan; normalean erabiltzen ez diren etxebizitzaren balorazioa egitea aldiro-aldi, Ondarearen gaineko Zergaren kontuan hartzeko.

Alokairuko parke publikoa. Etxebizitza eskuratzeko arazoari erantzuteko bide bakarra alokairuko etxebizitzaren parke publiko handia osatzea da. Alokairuko parke publiko hori denon artean ordainduko genuke, eta gizartearen zerbitzura egongo litzateke beti. Diru-sarrera mugarik gabe eta ordaintzeko ahalmenaren arabera alokairua finkatuko litzateke, %30 gainditu gabe. Era askotako etxebizitzak jaso beharko liriteke eredu horretan, eta ghettoak sortzen ez dela ziurtatu beharko litzateke. Dena den, erakunde publikoen lana ezin da adreiluak jartzera mugatu, komunitatea sortzeko ardura ere badute.

Hong Kong eta Singapur hiriak aipatuko ditugu berriro, mundu osoko etxebizitza publikoen programarik handiena baitute, %47 eta %86rekin, hurrenez hurren. Hiritan, alokairuak diru-sarreraren %10 ingurukoak izan dira beti, eta politika horrek izugarriko eragina izan du hazkunde ekonomikoan: Gobernuak ze-

harkako soldatak bere gain hartu dituzenez egonkortu egin dira soldatak, aurrezpen-tasa sortu da eta enpresak sortzeko ahalmena indartu da, etxebizitzaz eta zerbitzu publikoez osatutako oinarri soziala ziurtatua duelako jendeak. Horrez gain, etniaren eta maila sozio-ekonomikoaren arabera hedatzen ari zen segregazio espaziala ezabatzea lortu da, Singapurren bereziki.

Merkatua berreskuratzeko estrategiak. Berlingo okupa-mugimenduak erabili zuen estrategia hau *legezlatze*-prozesuan: kooperatibak sortu zituzten, etxebizitzak merkatutik atera eta espekulazioa galarazteko. Euskal Herrian ere baditugu halako ekimen zibilak, Iparraldean estrategia hori bultzatzen ari diren Etxalde eta Euskal Gazteria, esate baterako: etxebizitza erosi, berritu eta alokairuan eskaintzen dituzte. Halako ekimenak egon arren, erakundeek beren erantzukizunari erantzun behar diote, ekimenok bultzatuz eta antzekoak antolatuz.

Etxebizitza hutsak eta okupazioa. Milaka etxebizitza daude hutsik edo gutxi erabiltuta, eta hori sekulako iraina da, ikuspegi sozialetik nahiz ingurumenaren ikuspegitik. Borondate politikorik eza dago arazo honen azpian, eta ez da aski etxebizitza horiek merkaturatzea: kontrol-neurriak eta zigor-neurriak ezarri behar dira. Hutsik dauden etxebizitzak eta eliteek gutxien maite dituzten hiri-sektoreak biziberritu eta sozializazio-gune bihurtu ditu okupa-mugimenduak. Horren adibide dira Berlingo, Amsterdamgo nahiz Kopenhagengoko dinamikak. "Wir bleiben alle" izan zen Berlingo Harresia erori ondorengo okupazio masiboaren leloa. Gehienbat Berlingo Friedrichshain barrutian egindako okupazio haietan berlindar gazteek etxebizitza izateko eskubidea berreskuratu zuten. Euskal Herriko okupa-mugimenduak ere ibilbide ederra dauka hutsik dauden etxebizitzak erabilera sozialerako berreskuratzeko ahalegin horretan, erabile-ra-balioa lehenetsiz truke-balioaren gainetik.



Enpresetan langile kualifikatuak falta

Europako datuekin alderatuta, Lanbide Heziketako ikasketak hautatzen dituzten ikasleen kopurua oso txikia da Euskal Herrian.

Gizartea zahartzen ari da. Bolada ekonomikoaren aldaketak eta industriaren bultzada indarberriak errealitate gordin bat utzi dute agerian: enpresek zailtasunak dituzte langile berriak aurkitzeko, erretiratzeko direnak lanean hasten direnak baino gehiago baitira. Euskal Herria, gainera, jaiotza tasarik txikienetarikoa duen herrialdeetako bat da Europan.

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan 7.900 lanpostu daude bete gabe eskulan kualifikatuaren faltagatik

badela iritzi zioten adituek: lan bizitza luzatzea, langile etorkinak ekartzea, etengabeko formazioa sustatzea, emakumeen aktibitate-tasa areagotzea, ikasleak lanbide heziketara bideratzea... horietan eztabaida puntu garrantzitsuenak.

Europatik oso urrun

Hegoaldean ikasleen %45-48 inguruk aukeratzen dute lanbide heziketa, Europako herrialde garatuena baino ia 20 puntu gutxiago. 2006-2007 eta 2007-2008 ikasturteetan, esaterako, 30.000 bat ikaslek egin dute lanbide heziketarako hautua. Azken lau ikasturteetan matrikula kopuruak behera egin du Nafarroa Garaian izan ezik, %5eko igoera izan baitu.

Iparraldean, berriz, lanbide heziketa eta aprendizagoaren susperraldia ematen ari da azken urteotan, gainbehera prozesu luze baten ostean. 2004-

2005 ikasturtean, esaterako, 4.473 ikaslek egin zuten lanbide heziketa (3.331) eta aprendizagoaren (1.142) hautua Iparraldean. Lanbide heziketaren kasuan, aurreko ikasturtean baino 141 ikasle gehiago matrikulatu ziren.

Emakumeak: Industria jarduerekin harremana duten ikasketetan emakumeen matrikulazio tasa %10 ingurukoa da Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan

Lantegia, ikasgelarik egokiena


Eusko Jaurlaritzak ikasketak eta lana uztartuko dituen programa jarri du martxan 2007-2008 ikasturtean. Ikasi eta Lan programan 100 bat ikaslek eta 40-50 enpresek parte hartuko dute. Iparraldean antzeko sistema darabilte duela zenbait urte. Baina aprendizagoaren prestakuntza zentzuzko hainbat ikaslek ikasketak orduen 2/3 igarotzen dituzte enpresetan.

Etorkizuneko lantokietan erdara nagusi

Hizkuntza Behatokiak 2007. urtean egindako azterketaren arabera, lanbide heziketako hiru irakasletatik bat erdalduna zen Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan. Nafarroa Garaian ere egoera larria da: erdi mailako 32 moduluetatik, soilik 2 eskaintzen dira euskaraz, eta goi mailako 35etan ere beste horrenbeste. Iparraldean, berriz, ezinezkoa da lanbide heziketako ikasketarik egitea euskaraz. Gabezia hori betetzeko 2003 urtean Hezkuntzek elkarte bat sortu zen. Ikasleei Hegoaldeko D ereduko lanbide eskoletan ikasteko laguntza ematen die. Badu bigarren helburu garrantzitsu bat ere: Iparraldean industria gartzatzea eta behar diren bitartekoak sortzea.



LANBIDE HEZIKETAN MATRIKULATUTAKO IKASLE KOPURUA (2004-2005)



	2005-2006	2006-2007	2007-2008
ARABA			
EMLH	1.948	811	1.913
GMLH	2.645	1.323	2.266
Guztira	4.413	2.134	4.179
BIZKAIA			
EMLH	5.799	5.480	5.377
GMLH	8.335	7.755	7.535
Guztira	14.134	13.235	12.912
GIPUZKOA			
EMLH	3.476	3.314	3.241
GMLH	5.930	5.591	5.301
Guztira	9.406	8.905	8.542
NAFARROA GARAIA			
EMLH	3.049		
GMLH	2.946		
Guztira	5.995		

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Saila eta www.lurraldea.net

* EMLH: Erdi Mailako Lanbide Heziketa.
* GMLH: Goi Mailako Lanbide Heziketa.

Lanbide Heziketa Euskal Herrian: erronkak eta aukerak

Iñaki Conde Zubiaurre · Ikaslan Gipuzkoako lehendakaria

Lanbide Heziketaren egoera aldatu egiten da Euskal Herriko lurralde-eremu batetik bestera, hezkuntza-sistema desberdinak ditugulako EAEn, Nafarroa Garaian eta Iparraldean. Dena den, antzeko ezaugarriak aurkitzen ditugu hiru esparruotan: okupazio-tasa handia edo be-
launaldi-ordezkapenaren arazo larria, besteak beste.

2008ko hasiera honetan aldaketak ikusiko ditugu Lanbide Heziketan, gaur egungo lan-egoeraren ondorioz. Ordezkapen-tasa txikia eta gazteak lan-merkatutzeko arazoak dira gaur egungo lan-merkatuan nabarmendu beharreko bi ezaugarri. Egoera hori eragiten duten faktoreen artean azken hamarkadeta-ko jaiotza-tasa txikia eta gazteak lan-merkatuan berandu sar-
tzea aipatu behar ditugu.

Gauzak horrela, LHko tituludun gutxiegi daukagu, merka-
tuak eskatzen duenarentzat. Sektore hauetan dago beharrik handiena: elektronikoa, elektrizitatea, fabrikazio mekanikoa eta ekoizpenerako eta eraikuntzarako zerbitzuen mantenu-lanak. Halakoetan %90etik gorako enplegu-maila dago.

Gauzak horrela, Lanbide Heziketako tituludun gutxiegi daukagu merkatuak eskatzen duenerako

EAEn, ikasleen erdiak ingu-
rur aukeratzen du LH. Duela
urte batzuk %25ek bakarrik au-
keratzen zuen bide hori. Hale-
re, matrikulazioek behera egin
dute, jaiotza-tasa txikiaren on-
dorioz. 2006-2007 ikasturtean,
26.465 ikasle matrikulatu ziren
erdi- eta goi-mailako presta-
kuntza-zikloetan: aurreko urte-
an baino 500 gutxiago, eta 2002-
2003an baino 4.000 gutxiago.

Datozen urteotan belaunaldi-
ordezkapena egin beharko da
enpresetan, eta arazo horrek
arriskuan utzi lezake gure herri-
ko industria. Horrenbestez, funtsezkoa da administrazioak,
ekoizpen-sektoreak eta hezkuntzak batera jardutea. Formula
berriak sortu behar dira gazteak LHko ikastetxeetara erakar-
tzeko, industrian gehien eskatzen diren espezialitate eta ikas-
ketetara bereziki.

Iparraldean bestelako hezkuntza-sistema daukate, eta han
LHko ikasleen kopuruak gora egin du azken urteotan: 2005ean
3.331 ikasle ibili ziren LHn, aurreko urtean baino 141 gehiago;
halere, BEP (Ikasketa Profesionalen Agiria) lortzeko ikasten du-
tenen kopurua beherantz doa 1997az gerotik.

Gainerako lurralde-eremuetan bezalaxe, hirugarren sekto-
reko titulazioak dira Iparraldean gorakada handiena izan dute-
nak. Hemen ere, industria-sektoreko enplegu-tasa handiagoa



da hirugarren sektorekoa baino, eta langabezia-tasan
zazpi puntuko aldea dago bien artean.

Nafarroa Garaian, Lanbide Heziketako eskaintza ia
oso-oso publikoa da, EAEn ez bezala, bertan sare pu-
blikoaren eta pribatuaren artean banatzen baita erdi-
bana.

Emakumeak lanbide-heziketan

Sektore batzuetan dagoen langile-eskasiari erantzuteko neurri
ona izan liteke emakumeak hasiera betidanik gizonen arituta-
lanpostuetan. Dena den, oraindik arazoak daude emakumeek
lanpostu jakin batzuk aukeratzeko, ondo ordainduta egon arren.
Enplegu-tasarik handiena duten espezialitate gehienetan txikia
da emakumeen kopurua, eta hori aldatu beharra dago.

EAEn gertatzen den hasierako LHn ikasle guztien %44 ema-
kumeak izan arren, oso banaketa desorekatua dute eskaintzen
diren titulazioetan. Irudi pertsonaleko zikloetan, adibidez, %98
emakumeak dira; industria-adarretan, berriz, oso emakume gu-
txi dago. Egoera hori aldatzeko, diskriminazio positiboko poli-
tikak bultzatu beharko liriteke, behar bada.

Beste herri batzuetatik etorritako gazteengana jo geneza-
ke, halaber, eta horrekin integratzen lagunduko genieke, bide
batez. Lanbide Heziketak berebiziko garrantzia izango du ho-
rretan, bai prestakuntza-zikloen bidez, bai lanerako presta-
kuntza-programen bidez. Lan asko egin behar da alor honetan,
eta arazoak egongo dira agian, baina aukera berriak ere bai.

Gure gizartean LHko ikasle gehiago behar direla diogu, lan-
merkatuak dituen beharrei erantzun ahal izateko. Halere, ho-
rrekin batera, lanerako orientazioak duen garrantzi handia az-
pimarratu behar dugu, DBHren eta Batxilergoen amaieran be-
reziki.

Testuinguru honetan, etengabeko prestakuntzak eta berri-
kuntzak ere garrantzi handia dute enpresentzat eta langileen-
tzat, eta LHko ikastetxeetan lan handia egiten ari gara horren
inguruan.

Euskararen normalizazioa

Lanbide Heziketan euskara normalizatzea da erantzun beha-
rreko beste erronka bat. Euskararen hedapena asko aldatzen da
lurralde-eremu batetik bestera. Gipuzkoan, adibidez, asko he-
datu da euskara, eta ikasketa gehienak gure hizkuntzan egin dai-
tezteke. Araban, Bizkaian eta Nafarroa Garaian hedatuz doa, abia-
dura desberdinean herrialde bakoitzean. Iparraldean, gaia az-
tertzen hasiak dira.

Gaur egun, ahalegin handia egiten da materialak euskaraz
sartzeko. Horregatik, hutsuneak egon arren, hutsune horiek kon-
pontzeko erabaki sendo eta irmoa dagoela esan dezakegu.



Lanbide Heziketa aldaketa-garaian dago: aldaketa horietako batzuk hemen dira dagoeneko, eta beste batzuk laster iritsiko dira. EAEn eta Nafarroa Garaian, eskola-mapa birdiseinatu beharko da, Hezkuntza Legearen ondorioz ikastetxe integratuetan egin beharreko berregituraketari erantzuteko. Horrekin batera, ikastetxeen banaketa aldatuko da, eta hori kezka-iturri da guretzat.

LHko ikastetxeok gai izan behar dugu ikastetxe bakoitzaren egoera berezia zehaztu eta egoera berezi horri erantzuteko, eta aukera hau erabili behar dugu gure ikasketa-eskaintza hobeto koordinatu, indartu eta egituratzeko.

Ikastetxeetako langileei egonkortasuna ematea ere funtsezkoa da guretzat, bai eta kudeatzeko autonomia handiagoa lortzea ere.

Lanbide Heziketaren gaur egungo egoeran ikusten ditugun alderdi onen artean, LH aukeratzen duten ikasleen enplegu-tasa handia nabarmentzen da: ikasleen %84ek lana aurkitzen dute ikasketak amaitzean, eta industria-adarretan %90etik gorakoa da kopuru hori.

Enprekin daukagun harreman eta lankidetzak estua da hemen nabarmendu beharreko beste ezaugarri bat. LHren gaur egungo kalitateari esker (tituludunen prestakuntzak gero eta hobeto erantzuten die ekoizpen-sektorearen beharrei), enprezetan bete beharreko lanpostuen %70 LHko tituludunentzat dira. Horri guztiari esker, gizarteak oso iritzi ona du LHko ikastetxei eta profesionaleri buruz.

Lanbide heziketaren gaur egungo egoeran ikusten ditugun alderdi onen artean, lanbide heziketa aukeratzen duten ikasleen enplegu-tasa handia nabarmentzen da: ikasleen %84k lana aurkitzen dute ikasketak amaitzean

Bestalde, LHko ikastetxeek kalitatea eta bikaintasuna joratzeko gogo bizia izaten dute. EAEko LH erreferentzia da Espainiako Estatuan eta Europan, duela hamarkada bat kalitatearen alde hartutako bideari esker. EAEko LHko sei ikastetxeek "Urrezko Q" dute, adibidez; eta beste 33k, "Zilarrezko Q".

Gainera, urte hauetan guztietan, hiru azpi-sistemen batez bestearen adibide ezin hobeak izan dira gure ikastetxeak, ederi ki uztartu baititugu etengabeko prestakuntza, hasierakoa eta lanerakoa. Zailtasunak egon dira, noski, eta konpontzen joan gara egunez egun. Horri esker, gure ikastetxeak oso erreferente garrantzitsua dira gazte nahiz helduentzat, langabe nahiz langileentzat.

Berrikuntza

Dinamika horri jarraiki, ikuspegi berria eman zaio prestakuntza-prozesuari, eta bizitza osoko prestakuntza-prozesua bultzatzen da orain. Halere, neurriak hartu behar ditugu etengabeko ikasketarako jarrera hori gure ikasleen artean eta gizarte osoan zabaltzeko.

Azken urteotan, LHn aurrerapauso handiak egin ditugu berrikuntzaren alorrean, bai metodologiari dagokionez, bai teknologiari dagokionez. Gaur egun, LHko ikastetxeak ondo prestatuta daude teknologia aldetik, azken belaunaldiko ekipamenduak dauzkate, eta kudeaketa-sistema aurreratuak. Hel-

Ikuspegi berria eman zaio prestakuntza prozesuari, eta bizitza osoko prestakuntza prozesua bultzatzen da orain

buru horiek lortuta, gainerako taldeekin jardun behar dugu orain, erronka berriei erantzuteko.

LHk bide onetik jarraitzeko, aspaldiko eskakizun batzuei erantzun beharko zaie: langileak egonkortzea, kudeaketarako autonomia, zuzendaritzak eta irakaskuntzaz kanpoko langileak.



Txikiak txikitzen handiak handitzen

Saltoki txikien geroa auzitan egon da 2007 urtean zehar. Iruñean "Corte Ingles"-en zabaltzeak saltoki historikoen itxiera eragin du. Lapurdin, berriz, IKEA edo FNAC-en saltokiak eraikitzeak iritzi kontrajarriak eragin ditu. Gaur egun Euskal Herrian saltoki txiki eta handien arteko harremana gora-beheratsua da.

Auzi bera, errealitate desberdinak

Euskal lurraldean populazioa ez da berdin banatzen. Populazioaren ia bi heren dira hiriburuen zonaldeetan bizi direnak. Kontzentrazio handia dago hiriburuen inguruan eta hortik kanpo herri txikiak nagusi dira. Honela, saltoki txikiak ere desberdinak dira guneko urbano handietan eta txikietan.

Araba, Bizkai eta Gipuzkoako merkatuaren %25 daukate merkataritza guneko handiek

Egun auzitan dago guneko urbano handietako saltoki txikien geroa. Populazio gutxiago inguruetan, berriz, saltoki txikiak betetzen duten zerbitzua bestelakoa da. Iparraldean, esaterako, baserriko kalitatezko produktuen komertzializazio estrategia bat abian dela ezagutu dugu (Euskal Herriko Laborantza Ganbarak babestua). Ekoizleen helburua da, kalitatezko produktuak sortzea, balio erantsia dutenak, eta saltoki handiekin lehiatzea.

Euskal Herriko merkatarien elkarteak

Saltoki txikiak ordezkariek elkarteetan gainetik merkatarien indar metaketa egon behar duela uste dute, hauek lotura estua baitute Administrazioekin. Badira, halaber, Euskal Herri mailako merkatariek elkarteak sortzeko beharra eta borondatea azaldu duten merkatariek. 2007 urtean, esaterako, Euskal Dendak merkatariek elkarteak sortu zuten. Araba, Bizkai eta Gipuzkoako 5.000 merkatariek inguru biltzen dituzten Euskal Dendak elkarteak, eta Euskal Herri osora hedatzeko asmoa du.

Merkataritzarako erakargarri izan behar dira auzo, herri eta hiriak. Horretarako administrazioek baliabideak jarri behar dituztela uste dute saltoki txikiak jabeek

Mundializazioarekin lotutako auzia

Aurten Bolkestein Araudiaren inguruko akordioarekin Europako Parlamentuak 2010 urterako merkataritza liberalizatuko duen lege nagusia onartu du. Merkataritzaren liberalizazioak (produktu eta zerbitzuen) auzitan jarriko ditu gaur egungo denda txikien bidegarritasun ekonomikoa eta bertako produktu askoren merkata.

Bolkestein Arauak erruz mugatuko ditu Administrazioen eskumenak. Besteak beste, ez du utziko ikerketarik egiten merkataritza guneko handiek inguruko ekonomian —eta saltoki txikien sarean— izan dezaketen eraginari buruz. Baina Jaurlaritzak dekretua onartu du (2006ko abenduan).

Dekretuak, aitzitik, badauzka merkatarien ustez zenbait puntu eztabaidagarri. Hala, une honetan, merkataritza guneko handiek 700.000 metro koadro betetzen dituzte hiru herrialdeetan. Dekretu berriarekin, 1,5 milioi metro koadrorara heldu ahaliko dira. Eta leku hori agortuta egon arren, multinazionalak aukera izango dute saltoki berriak jartzeko hirien eta herrien kanpoaldean, baldin eta inguru horietan 450 etxe berri edo gehiago eraikitzen badira.

Txinatar jatorriko produktuak saltzen dituzten saltoki txinatarren auzia izan daiteke datorrenaren erakusle. Horri erantzunez etorri da, besteak beste, aurtengo Eusko Jaurlaritzak saltoki hauen egutegia eta ordutegia mugatzeko hartutako erabakia.

Saltoki txikien eta ertainen salmentak jaisten ari dira Nafarroa Garaian (%1-2), Araba, Gipuzkoa eta Bizkaian, berriz, gora egin dute azken bi urteetan (%3-6)



ESTABLEZIMENDU KOPURUA ARABA, BIZKAI ETA GIPUZKOAN, 2004

	EAE		Araba		Bizkaia		Gipuzkoa	
	Establezimendu kopurua	-1%	Establezimendu kopurua	-1%	Establezimendu kopurua	-1%	Establezimendu kopurua	-1%
Guztira	38.853	0.5	4.899	-0.3	20.391	0.5	13.563	0.7
Handizkariak	8.029	1.5	1.035	0.5	4.241	2.2	2.753	1.0
Txikizkariak	30.824	0.2	3.864	-0.6	16.150	0.1	10.810	0.7

Iturria: (1) 2003etik 2004an lortutako aldaketa-portzentajea
Iturria: EUSTAT. Jarduera Ekonomikoen Gidazerrrenda.

Norantz doa merkataritza?

Koldo Nabaskues · EKA/OCUV-eko lehendakaria

Merkataritza-sektoreak aldaketa sakonak izan ditu azken hamarkadetan. 1960ko eta 1970eko hamarkadetan, banaketa-jarduerak oso banatuta zeuden: merkataritza txiki independenteak edota enpresa batzuei atxikitakoak (IFA, Spar, Vegé) aritzen ziren horretan gehienbat, herri-mailako zenbait talderekin batera. Horrezaz gain, betiko merkatuak (Bretxakoa, Bilboko Erriberakoa, Santo Domingokoa, Plazakoa...) eta kontsumitzaile-kooperatiba txikiak (Bide Onera) zeuden. Euskal Herri osoan banatutako kooperatiba horiek geroa Eroski izango zenaren ernamuina izan ziren. Sare trinko horrek herritarren behar guztiei erantzuten zien, kalitatea, gertutasuna, harreman pertsonala eta lehia eskainiz. Horrek prezioen nolabaiteko oreka ziurtatzen zuen. Jendea ia egunero jotzen zen erostera, etxetik gertuko dendetara.

Bestelako saltokiak hedatzen eta garatzen hasi ziren, ordea: elikagaiak soltean eta ontziratu gabe betiko salmahai edo mostrodoan saltzetik autozerbitzura pasa ginen, aurrena, eta supermerkatuetara, hurrena; hotz-kateak iritsi eta zabaldu ziren gero, hornidura eta banaketa (logistika) goitik behera aldaraziz. Hala, *kateak* eta gehienbat Frantziako Estatutik ekarritako ereduak hedatu ziren orduan: garraio eta banaketa gastuak murrizteko, eta beste batzuen esku zeuden merkataritza-espazioak eskuratzeko, dendak eta kate txikiak erosten hasi ziren kate horiek, saltokien jaun eta jabe bihurtzeko asmoz. Metro koadroaren konkista hasi zen orduan.

Kontuan hartu behar dugu produktu ontziratuak oso marjin txikia uzten dutela sektore honetan, eta, hortaz, sektoreko irabazi gehienak finantza-fluxuei zor zaizkie. Sektore honetan, ordainketak hornitzaileekin epe ertain edo luzerako negoziatuz egiten dira, eta kontsumitzaileok, aldiz, erosi ahala ordaindu beharra daukagu. Hortaz, apaletako produktuen batez besteko errotazioa izugarria da: urtarrilean jasotako salgaiak ordaintzeko garaia iristen denerako, otsaileko eta martxoko guztiak txikizka salduta eta kobratuta dauzka kateak, eta hiru hilabeteko cash-a pilatzen du, horrela, hornitzaileari ordaindu aurretik. Supermerkatu edo hipermerkatu batek denbora horretan saldutako guztiaren dirua hornitzaileei ordaindu aurretik bere esku gordetzearen parekoa da hori.

1970eko hamarkadatik aurrera, banaketa-enpresa handiak saltokietako metro koadroa eskuratzeko borrokan murgildu ziren. Garai hartan, kate handiak ez zeuden oso hedatuta gure herri eta hirietan, eta hedatzen hastean kanpoko ereduak ezarri zituzten. Joera horren adibide adierazgarri batzuk aipatuko ditugu orain: Oiartzungo Mamut, mugatik gertu (1977); Eroski hipermerkatua, Gasteiz kanpoaldean (1985); Sabeco supermerkatuen (Auchan taldekoak) hedapena. Saltoki handiak hedatu ahala, herrietako saltoki txikiak itxiz joan ziren, kate handiek erosita.

Aldaketa hori ez da elikagaien alorrean gertatu soilik, beste sektore askotara ere (arropa, burdindegia, etxetresna elektrikoak, elektronika, altzariak eta kirolak) iritsi baita. Sektore horietako dendak asko itxi dituzte eta beste eredu bateko dendak ireki dituzte haien ordeztu: dendak-kate handiak (Zara, Mango, Leroy Merlin, Aki, Saturn, Ikea, If, Decathlon, Forum Sport) eta halakoen frankiziak. Eskaintza asko murriztu da horren ondorioz, eta enpresa-metaketa gertatu da sektore osoan.

Carrefour talde frantsesa hartuko dugu adibidetzat. 1973an ireki zuen bere lehen hipermerkatua Katalunian, eta 2006an, berriz, 154 hipermerkatu zituen Espainiako Estatuan (7, Euskal Herrian), 82 supermerkatu (5, Euskal Herrian), Feuvert markako 73 mekanika-taller, 73 gasolindegia, 74 bidaiari-agentzia, 8 etxe-agentzia, aseguru eta finantzen alorreko 135 filial. Horrez gain, telefonian ere murgildu da eta supermerkatu gehiago ditu beste izen batzuekin (DIA izenekoak, adibidez). Guztira 2.100 lanpostu ditu Euskal Herrian.



Aipatu dugunaz bestelako supermerkatu eredu bat aipatuko dugu orain: Uvesco SA. Irunen du egoitza, eta Gipuzkoan, Araban, Bizkaian, Nafarroa Garaian eta Kantabrian dauzka dendak. Denera 150 supermerkatu ditu, 1.700 langile eta 380 milioi euro salmentetan. Super BM eta Netto izenak erabiltzen ditu.

Azken boladan, beste era bateko dendak zabaltzen ari dira: Lidl alemaniarraren tankerako supermerkatu merkeak, urteko egun guztietan zabalik egoten diren asiarren bazarrak, menu bakarreko turkiar jatetxeak eta garaiz kanpoko arropen saltokiak (outlet direlakoak).

Merkataritza-gune handiak jendearen bilgune nagusiak bihurtu dira gaur egun, Erdi Aroko plazen antzera. Erdi Aroan, plazan elkartzen ziren herritarrek salerosketak egiteko, harreman sozialetarako, erlijio-ospakizunetarako... Gaur egun, berriz, saltoki handietara joaten gara, askorik pentsatu gabe, eta gure printzipioak (ingurumenekoak nahiz arrazionalak) alde batera utzita. Leku horietan eskaintza pilatu eta uniformizatu egiten da, berdin-berdinak direlako horrelako saltoki guztiak, marka eta denda berdinak daude guztietan, ordutegi zabalak dituzte eta urteko egun guztietan zabalik egotearekin tematuta egoten dira. Ezin dugu ahaztu, ordea, zein den saltoki handi hauen sustatzaileen negozio nagusia: higiezinena, hain zuzen ere. Izan ere, zenbat eta egun gehiagotan zabalik egon, orduan eta handiagoak errentak. Gure gertuko denden heriotza eragiten ari da saltoki handien arrakasta.

EAEko Ekonomia eta Gizarte Kontseiluak Merkataritza Jarraierari buruzko Legea aldatzeko proiektua bertan behera uz-

Saltokiak jaiegunetan irekitzeak gure ohiturak aldarazteaz gain, zapuztu egingo luke 40 orduko lanaldia lortzeko eta errespetatzeko langileek urte luzeetan egindako borroka

teko eskatu dio Eusko Jaurlaritzari, kaleratu duen azken gomendioan. Gomendio hori aho batez onartu zuten EGK-ko kide guztiek, eta saltoki txikien erakunde, sindikatu eta kontsumitzaile asko eta askoren babesa jaso du. Alde guztiei kontsultatzeko eta egiten diren alegazioak kontuan hartzeko eskatzen zaio Eusko Jaurlaritzari gomendio horretan. Gure ustez, alde guztiei galdetzeaz gain, parte-hartze demokratikorako aukerak zabaldu behar dira, eta denen artean eztabaidatu eta erabaki behar ditugu gai hauek, bai egiturak zehazteari dagokionez, bai



hirigintza planifikatzeari dagokionez. Hala, ingurumena gutxien kaltetzen duten ereduak aukeratu behar dira, murriztu egin behar dugu autoaren erabilera eta aintzakotzat hartu behar ditugu irisgarritasuna eta kostuen esternalizazioa.

EKA-k (EAEko Kontsumitzaileen Elkartea) EAEko herritarren kontsumo-ohiturei buruz egindako inkesta/azterketa batean, jaiegunetan dendak irekitzea nahi duten galdetu zitzaizen herritarrei. Berriki eguneratutako inkesta horren bidez, enpresa-sektore jakin batzuek herrien kanpoaldeko saltokiak egunero-egunero irekitzeko darabilten oldarraldi interesatuari erantzun nahi izan zaio, horrek herri eta hirietako saltoki txikiak zokoratu eta, azkenerako, desagerrarazi egingo lituzkeelako.

Azterketa honek emaitza garbia utzi digu, jaiegunetan irekitzeko inolako beharrik ez dagoela erantzun baitute herritar gehien-gehienek. Kontsumitzaileen %94ren iritziz, oraingo ordutegia aski da beren kontsumo-beharrei erantzuteko. Saltoki handietan erostera joateko arrazoi nagusia saltoki horietako entretenimendu-eskaintza dela erantzun dute %55ek. Erabaki arriskutsua da kontsumoa eta aisialdia nahastea, are gehiago eskaintza handiena haur eta gazteei zuzentzen zaiela ikusita. Erakarmen-gune horiek gero eta indar handiagoa hartzen ari dira, hirietako zinemak itxi ahala, eta horrekin arrakala handia sortzen ari da ibilgailu propiorik ez dutenen (zaharrak gehienbat) eta badutenen artean.

Saltokiak jaiegunetan irekitzeak gure ohiturak aldarazteaz gain, zapuztu egingo luke 40 orduko lanaldia lortzeko eta jaiegunak errespetatzeko langileek urte luzeetan egindako borroka. Bat-bateko eta pentsatu gabeko kontsumoa areagotzea beste ondorioz ez luke ekarriko, eta, horren ondorioz, familien zorrak handitu eta aurrezpena gutxituko litzateke.

Merkataritza-guneak urtean 3.750 ordu egoten dira irekita. Langileon lanaldia 1.750-1.800 ordu ingurukoa da, hitzarmenaren arabera. Hortaz, nahi adina denbora daukagu gure erosketak egiteko eta gure asialdiaz gozatzeko. Argi eta garbi dago or-



dutegi-astakatasuna eskatzen dutenen atzean ezkututzen den asmoa: merkataritzako diru-sarrerak saltoki txikien eskuetatik saltoki handien eskuetara pasaraztea. Espainiako Estatuan 1.800-2.000 milioi euro inguruan kalkulatu da denda txikietatik handietarako transferentzia hori.

Hasiera batean, dendak jaiegunetan iretzea kontsumitzaileentzat ona izango litzatekeela pentsa genezake, horrela, nahi dugunean, prezio onenean eta eskaintza zabal-zabalarekin erosteko aukera izango genukeelako. Gauzak oso bestelakoak dira, ordea. Hona hemen adibide argi batzuk: Madrilan, jaiegunetan irekitzeko ia erabateko askatasuna dute eta, hasieran pentsatu zenaren kontra, lanpostuak galdu dira, prezioak merkatu gabe. Frantziako Estatuan, aspaldidanik ezagutzen dute eredu hau eta liberalizazio handia daukate. Halere, kostuak nabarmen handitu dira, eta, horrek txarrerako ondorioa izan du prezioetan.



Saltoki handietako linealen eskaintza murriztu egin da, lehia desagertu egin da ia (produktu batetik dagoen marka kopurua) eta marka *zuriak* eta marka-izenak ugaritu dira. Gero eta talde gutxiago dabilta sektore honetan (Carrefour, Alcampo, Eroski, El Corte Inglés, Zara). Oligopolioa dakar horrek, eta kontsumitzaileen erabakitzeak aukerak murriztea: gero eta uniformeagoak dira gure ohiturak eta galtzen ari gara gure betiko ohiturak.

Azken batean, sortu diren kontsumo-ohitura, bizimodu eta gizarte-harremanen eredu berriak, gure espazio aldatuak eta giza harremanen desnaturalizazioa dira gako nagusiak hemen. Gizartea saltoki handi bat bihurtzen ari da, eta herritarrok kontsumitzaile hutsak gara orain, hots, soil-soilik salgaiekin dugun harremanaren arabera definitutako izakiak. Gure bidea aukeratu behar dugu: gure bizitza saltoki handien inguruan egitura nahi dugun, ondo pasatzeko edo dibertitzeko aukera bakarra kontsumitzea izanik; ala herri eta hiri gardenak izatea nahi dugun, merkataritza gure bizitza sozialeko beste tresna bat gehiago izanik.





874.09



Urteko azterlanak

Euskal Herriko ekonomia eta gizarteko alorrak jorratzen duten ikerketen laburpenak

- Iparraldeko lan merkatua eta ikasleen formazioa.
- Adierazle nagusien kalkulua Euskal Herrirako.
- Egitura adierazleak.
- Euskal Herriko laborantza.
- Demografia eta ugalkortasuna.

Frantziara ikastera eta lan bila

Gaur egun Euskal Herriko zenbait lurralde eta sektoretan emigrazioa errealitate ezaguna da. Iparraldean urtero milaka gazte joaten dira Euskal Herrikan kanpo ikastera edo lan bila eta, sorterrira itzultzen direnen kopuruari buruzko daturik ez dago. Alta, Iparraldean bada nahikoa lan bertakoentzat. Gaindegia eta Hemen elkarrekin egin ikerketak migrazio mugimendu horren arrazoiak aztertu ditu.

1982 eta 1999 bitartean Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoako 47.000 herritar, gehienak lan egiteko adinean zeudenak, Iparraldea utzi eta Frantziako Estatura joan ziren bizitzera. Gaur berean 80.000 etorkin hartu zituen Iparraldea, horiek ere gehienak lan egiteko adinean zeudenak.

Azken hamarkadetan migrazio mugimendu horiek Iparraldeko populazioaren egitura irauli dute. Gaur egun, zentsuaren arabera, populazioaren %31 bakarrik da bertan sortua eta bertako gurasoak dituen. Beraz, aldaketa prozesu horren arrazoiak eza-gutu eta bertako populazioa atxikitzeko modu eraginkorrek aurkitu ezean, hamarkada gutxitan Iparraldeko euskal identitatea erabat gal liteke.

Ondorioak Iparraldeko gazte gehienak prest daude, ikastera edo lanera, sorterrira utzi eta atzerrira joateko. Iritzi hori agertzen duten gazte gehienek unibertsitate mailako ikasketak egin nahi dituzte.

Multzo batek bertan bizitzen jarraitzeko hautu garbia egin du. Horregatik inguruan duten aukeren artean hautatzen dute, bai formazioari bai lanari dagokionez.

Desplazatzeko prestutasun handia izan arren, gehienek Hegoaldean ikasi edo bizitzeko aukera ez dute aztertu ere eginen. Informazio falta da horren arrazoi nagusia.

Lan taldea Lanaren zuzendariak Solange Mariluz (irakaslea eta Iparraldeko ekonomian aditua) eta Anton Borja (UPV-EHUKo irakaslea) izan dira eta Mirentxu Arbeletxe, Xan Anton Durruty, Arantxa Idieder eta Eulatz Zufiaurre gazteek (Bordele nahiz Tolosako unibertsitatean soziologia ikasketak amaitu berri dituzte) burutu dute landa-lana.

Izenburua: Baiona-Donostia euskal euro hiria eta bere eragin-eremuko gazteen txertatzea Iparraldeko lan merkatuan. Formakuntza eta lan ibilbidea.


Argitaratzailea: Gaindegia .
Laguntzailea: Hemen elkarrekin.
Egileak: Mirentxu Arbeletxe, Xan Anton Durruty, Arantxa Idieder eta Eulatz Zufiarre. Solange Mariluz eta Anton Borja adituen zuzendaritzapean.
Hizkuntza: euskara.
Orrialde kopurua: 72
Argitaratze data: 2008ko urtarrila.
Ikerketa eskuratzeko: www.gaindegia.org

Problematikak Iparraldean formazio-eskaintza oso mugatua da. Lanbide-heziketa eskaintzen da batez ere. Unibertsitate mailako ikasketak eskaintza urriagoa da. Beraz, Iparraldean bizitzen jarraitu edo atzerrira joan hautatu behar izaten dute gazteek egingo dituzten ikasketak aukeratzeko.

Lan-merkatuan egoera antzekoa da. Sortzen diren lanpostu gehienak kualifikazio baxukoak dira eta bost jardueraren eremutan biltzen dira: turismoa, zerbitzuak, laborantza, osasuna eta eraikuntza. Gainera, eskaintza gehienak Lapurdi kostaldean biltzen dira eta soldatak Frantziakoak baino arras apalagoak dira.

Metodologia "Bizitza istorioak" izeneko metodologiaren bidez Iparraldeko 61 gazte elkarrizketatu zituen lan taldeak. Horrela, gazte horiek jasotako formazioari buruz zein lanari buruz dituzten iritzi eta asmoak ezagutu eta aztertu dira.

IPARRALDEAN, 15-49 URTE BITARTEKOEN OFIZIOA (1999)



Iturria: INSEE



Adierazle nagusiak kalkulatzeko

Gaindegiako ekonomilari talde batek 22 adierazle nagusi kalkulatzeko lana egin du. Lan honek Euskal Herriko errealitate sozio-ekonomikoaren indizeak ezagutzera eman ditu, bai herrialdeka bai nazio mailan. Indize guztiak Europako Batasuneko estatuen indizeekin alderatuta eskaini dira. Lan honek aurretik Gaindegiak adierazle mailan egindako lana osatzen du.

Egun esan daiteke zenbatzen ez dena ez dela existitzen. Euskal Herriari dagokionez maila honetan hutsune handia dago, batez ere makro-adierazle eta egiturako adierazleen eremuan.

Aipatu adierazleen indizeak ezagutzeari garrantzia handia ematen zaio egungo politikan, besteak beste, oinarritzako dir-elako kohesio soziala, garapen ekonomikoa edo ingurugiroarekiko errespetuzko politikak sustatzeko.

Neurtutako adierazleen artean daude Barne Produktu Gordina, enplegua, berrikuntza eta ikerkuntza, enpresen inbertsioa, langabezia, pobrezia, gastu soziala, familien errenta...

BE-ren laguntzaz) eremu honetan datuak eskaintzen dituen bakarra. Arlo hau, beraz, etorkizunean sakon landu beharko da.

Lurraldekako datuei dagokienean, Iparraldeko datuak izan dira eragozpen handienak eman dituztenak. INSEE zein REGIO-tik, Akitania eta, zenbait kasutan, Pirinio Atlantiarreko datuak eskuratu ostean, indizeak kalkulatzeko estimazioak egin behar izan dira horien bitartez Iparraldeko datuetara gerturatzeko.

Lan Taldea Lana UPV-EHU-ko irakasle diren Enekoitz Etxezarreta eta Ion Larrañagak burutu dute. Zuzendaritza lanak UPV-EHUko irakasleek dituzte. Hainbat adituren aholku eta laguntza jaso da Iparraldeko indizeak kalkulatzeko.

Izenburua: Adierazle ekonomiko eta sozial nagusiak 0.1
 Argitaratzailea: Gaindegia.
 Egileak: Enekoitz Etxezarreta eta Ion Larrañaga ekonomilariak
 Hizkuntza: Euskara
 Orrialde kopurura: 200
 Argitaratze data: edizioa prestatzen.
 Argibideak www.gaindegia.org web gunean.


Prozedura Euskal Herriko errealitate sozio-ekonomikora gerturatzeko adierazleak sortzen dituzten estatistika erakunde ezberdinak izan dira iturri (EUSTAT, NIE, INE, INSEE, EUROSTAT).

Lan honen lehentasuna datuen bateragarritasuna izan da. Beraz, ahal izan den guztietan Eurostat-ek bere REGIO datu-base erregionalean eskaintzen dituen indizeak hobetsi dira. Zifra horiek, jakina, gainerako estatistika erakundeek landutakoekin kontrastatu eta aberastu dira, eta datu eskuragarri izan ez den kasuetan estimazioak egin dira.


Estimazioena eremu labainkorra izanik ere, sortutako formulak ahalik eta bermerik handienarekin egin dira, horretarako adituekin adostutako formulazioak hobetsiz.

Hutsuneak eta ezintasunak Lan honek hutsune nabarmena du ingurumenari dagozkion adierazleetan (arazo bera dago Egiturako Adierazle europarrak osatzeko). Adierazle horiek oraindik orain ez dituzte maila erregionalean elaboratzen ez Eurostat, ez INE eta ez INSEE-k. Bertako Estatistika Erakundearen artean Eustat da (IHO-

EUSKAL HERRIKO ENPLEGUA JARDUERA EKONOMIKO BAKOITZEAN BANATUA (2001/IPARRALDERAKO 1999)



EUSKAL HERRIAN URTEKO BATAZBESTEKO IRABAZI GORDINAK, EUROTAN ETA HERRIALDEKA, 2004





Lisboako strategiaren adierazleak Euskal Herrirako

2000ko martxoan, Europar Kontseiluak Lisboako Estrategia zehaztu zuen hurrengo hamarkadan zehar Europako Batasunean ondoko helburu estrategikoa lortzeko:

Ezagutzan oinarritutako munduko ekonomia lehiakorrena eta dinamikoena bihurtzea, hazkunde ekonomiko iraunkorra izanik, enplegu gehiago eta hobea lortuz eta gizarte-kohesioari eutsiaz.

Adierazleen edukiak Estrategia horrek hiru alderdi uztartzen ditu ikuspegia du oinarrian: ekonomiaren berrikuntza, gizarte-kohera eta ingurumen iraunkorra. Etengabeko berrikuntzaren bidez produktibitatea handitzeko beharrari ematen zaio garrantzia, baina ez helburu ekonomikoei begira bakarrik, produktibitatearen etengabeko hazkundeak gizarte kohera lortzeko baldintzak ekartzen dituela uste baita.

Bestalde, estrategia horretan ingurumena aintzat hartzea erabaki zuen Göteborgeko Kontseiluak. Orduan adierazi zuten, berrikuntza da BPGren hazkundera eta ingurumenaren hondamenaren gorakada bereizten lagundu dezakeen gakoetako bat. Zentzu horretan, gizarte kohera eta ingurumen txukunekoak dira gizarte sormena eta berrikuntza garatzeko esparru egokiena.

Politika handi horietako bakoitzerako estrategia eta jarraibide batzuk finkatu ziren eta, zenbait kasutan, helburu kuantitatiboak ere bai. Politika horien emaitzen jarraipena egiteko, koordinazio-metodologia irekia onartu zen.


Metodologia eraikitze zailtasunak EUROSTAT-ek, 132 adierazleren gainean eraikitako estimazioetan oinarrituta, 14 adierazle sintetiko definitu zituen egiturako adierazleen zerrenda osatzeko. Gaur egun Euskal Herrian informazio estatistikoari dagokionez hutsune handiak daudenez, zailtasun berezia du lan honek. Gabezia horien ondorioz, ingurugiroa edo teknologia berrien erabilerako zenbait arlotan, esaterako, ezinezkoa da Euskal Herri osorako daturik ematea, eta batzutan ezta lurralde eremu batekoa ere.

Lehen lan honen izaera, beraz, esperimental da eta geroztik metodologia hobetu eta indizeak berriro kalkulatzeko lanean dihardu lan taldeak (Ikus adierazle makro-ekonomikoen inguruko lana).

Jasotako adierazleak Kalkulatu ahal izan diren adierazleak bi multzo nagusitan antolatuta daude: dinamika ekonomikoa eta gizarte kohera. Ingurugiroari dagozkion adierazleak EAEkoak dira bakarrik. Lehen multzoan Barne Produktu Gordina, produktibitatea, Ikerketa eta Garapenean egindako inbertsioa edo herritarren formazio maila neurtzen dira. Bigarrenean, berriz, babes soziala, pobrezia, enplegua, langileen formakuntza edo langabezia, besteak beste.


Lan taldea Lana Igor Uriarte soziologo eta ekonomilariak egin zuen eta hainbat adituren laguntzarekin osatu zuen metodologia.

EMAKUMEZKOEN ENPLEGU TASA (15-64)



Iturria: EUROSTAT, EUSTAT, INE, INSEE eta Nafarroako Gobernua

ESKULAN LANDUNAREN PRODUKTIBITEA, EB-15/EB-25



Iturria: EUROSTAT, EUSTAT, INE eta INSEE

Laborantzaren aldaketa sakona



Gaindegiak Euskal Herriko laborantzaren egoera eta bilakaera aztertu ditu. Horretarako laborantza zentsuetan jasotako indize estatistikoak aztertu ditu Udalerri mailatik hasita. Lan honek sendotasun handiko oinarria eskaintzen du Euskal Herriko laborantzaren bilakaera ezagutu eta Europako Batasuneko estatu eta lurraldeekin alderatzeko.

Problematika Lehen sektorea, eta honen baitan laborantza, gainbehera doazen sektoreak dira Euskal Herrian (2001 urtean biztanleria okupatuaren %3). Prozesu hau, ordea, ekonomia garatua duten herrialde guztietan gertatzen ari da. Gero eta maizago entzuten da, ordea, laborantzak eginkizun oso garrantzitsua duela gaur egungo munduan. Gorde beharrekoa eta babestu beharrekoa dela esatea, gaur egun oso zabaldua dagoen iritzia da. Elikagaiak bertan ekoiztearen garrantzia aipatzen da, landa eremuak populaturik izatearen premia, paisaia gordetzearen balioa...

Euskal Herriko azaleraren %53,7 Nekazaritzarako Azalera Erabilgarri izendatuta dago. Halaber, zenbait herrialdeen ekonomiaren zutabeetako bat da, batez ere Nafarroa Beherea eta Zuberoa (enplegatuen % 26,3

eta %21,5 hurrenez hurren).

eta %21,5 hurrenez hurren).

Euskal Herriko laborantza, ordea, eraldaketa sakon batean sarturik dago. Aldaketa teknologikoak ez ezik, gestio mailakoak, ekonomikoak, demografikoak... gertatzen ari dira. Lan honek laborantza zentsuen azterketa egiten du eta eraldaketa prozesu horren zenbait alderdi (ez guztiak) ezagutzeko aukera eskaintzen du. Laborantza zentsuek oinarri metodologiko komuna dutenez, tresna ezin egokiagoa dira, bateragarritasuna eta homologagarritasuna bermatzeko, errealtate honetara hurbiltzeko.

Metodologia Azterketa egiteko Euskal Herriko laborantza zentsuak bateratu zituen Gaindegiak. Lan luze eta konplexu horren emaitzak eskuragarri daude www.datutalaia.net datu biltegian eta lanaren txosten guztiak www.gaindegia.org web gunean.

Datu gehienak udalerrri mailakoak badira ere, txosten honetan datu orokorren eta zazpi herrialdeetako datuen aurkezpena egiten da. Lehenik eta behin udalerrri mailan argitaratzen den informazioa aztertu da. Datu horien bateragarritasun aukerak aztertu dira, eta datuak jaso eta bateratzeko egin beharreko moldaketak egin dira.


Moldaketak egin eta bateragarritasunak aztertu ondoren, datuen tabulazioa eta infografia osatu da. Azkenik, datu garrantzitsuenekin emaitzen txostena burutu da.

Laborantza zentsuak batzeko bi eragiketa berezietatik hartu da informazioa: Ministère de l' Agriculture et de la Pêche: *Recensement Agricole, 2000* eta INE: Censo Agrario, 1982, 1989 eta 1999.

Lan taldea Azterketa Aztiker SL-k egin du Gaindegiaren zuzendaritzapean. Iñaki lurrebaso izan da lanaren zuzendaria eta Amaia Elizagarate eta Igor Uriarte soziologoak izan ditu lankide.


Lana burutzeko, berriz, unibertsitateko irakasleak, administrazioeko teknikariak eta nekazari sindikatueta adituen iritzia eta aholkuak jaso dira.

1. SEKTOREAN ENPLEGATUTAKO BIZTANLERIA %, 2001




Iturria: Datu Talaia.

USTIATEGIEN BANAKETA HERRIALDEKA 1999 (%)



Iturria: Datu Talaia.



Ugalkortasun baxua arazo

Gaindegiak UPV-EHUko Soziologia I sailarekin elkarlanean ugalkortasunaren auzia gaur egungo Euskal Herrian zertan den aztertutuz. Hemen aipatzen dugun lanak 2006an burututako jardunaldian aurkeztutako dokumentazioa biltzen du. Bertan azaltzen denez, munduko ugalkortasun tasarik baxuenetako du Euskal Herriak eta egoera honek erronka handiak dakartzkio Euskal Herriari, bai ekonomiari dagokionez, bai bere identitatea gordetzeko egin beharreko ahaleginari dagokionez.

Demografiaren bilakaerak, eta kasu honetan, ugalkortasunaren azterketak, Euskal Herriaren oraina ezagutu eta etorkizuneari gertatutako diren joerak ikusten laguntzen du. Honek lotura zuzena du herri baten garapenean, kulturaren biziraupenean, ekonomiaren sostengarritasunean, familia ereduaren...

Gure errealitatearen ezagutzak eta emandako eboluzioaren azterketak geroa ezagutzen eta aurreikusten laguntzen dute. Asmo hori betetzeko antolatu zuten EHUko Soziologia I sailak eta Gaindegiak *Ugalkortasunaren auzia etorkizuneko Euskal Herrian* jardunaldia.

Ugalkortasun indize baxua ekonomia garatua duten herri gehienetan ezagutzen den arazoa da. Egoera hori ez da, ordea, aberastasunak eragindako fenomeno bakarririk. Herritarren bizimodu antolatzen duten ohitura eta politiken ondorio ere bada. Nola hobetu ugalkortasun indizeak lan erritmo altuak edo etxebizitzaren salneurri jasanezinekin?

Munduko gizarte garatu guztietan agertzen den auzi horrek, ordea, Euskal Herrian ezaugarri bereziak hartzen ditu. Batetik, bertako administrazioek oso ahalmen mugatua dute zuzenean eragiteko (Hegoaldean) edo ez dute inolako eskumenik (Iparraldean). Bestetik, Euskal Herriko identitatea gorde eta garatzeko zailtasun handiak daudelako. Arazo horrek dimentsio berezia hartzen du zenbait eskualdetan. Batzuetan populazioa galtzen ari da (nekazal eremu askotako errealitatea) eta beste batzuetan migrazio mugimenduek populazioaren osaketa eraldatzen ari dira: Lapurdiko populazioaren %69 kanpoan sortua da edo/eta kanpokoko gurasoak ditu.

Lan taldea Lan bilduma honetan UPV-EHUko Mila Amurrio, Ane Larrinaga eta Marta Luxan irakasleen eta Gaindegiako Amaia Elizagaratek lanak biltzen dira.




Honela laburbiltzen du Amaia Elizagaratek auzi honen inguruan jardunaldian aurkeztu zen analisia: “Egun Euskal Herriak duen ugalkortasun maila baxuak gure herria atakan jarri duela esan dezakegu. Eta ataka honetatik ahalik eta sendoen ateratzen asmatu beharko dugu. Ahalegin horretan, ordea, ezin dugu gure burua engainatu, herri ikuspegia behar dugu. Gure ekonomia bezala gure identitatea auzitan dagoela jabetu behar dugu (oso nabarmena da hori ekialdeko lurretan). Seguru aski, luze itxaron beharko dugu egoera hau iraultzeko bidean jarriko gaituen egitasmo bat ikusteko. Gaur gaurkoz eztabaida dagoela ere ez dut ikusten, ez husten ari zaizkigun eskualde eta herriez, ez etorkin mota desberdinen eraginaz edo hauen integrazioaz, ez gizarte eredu eta eredu ekonomikoa egokitzearaz seme-alabak, gurasoak edonon sortuak direla ere, gure herrian sor eta bizi daitezten.

Ugalkortasuna atakan. Iritzia
Amaia Elizagarate

Izenburua: Euskal Herriko demografia eta ugalkortasuna

Argitaratzailea: Gaindegi Egileak: Ane Larrinaga (Soziologoa, EHU), Mila Amurrio (Soziologoa, EHU), Amaia Elizagarate (Soziologoa, Gaindegi) eta Marta Luxan (Soziologoa, EHU). Hizkuntza: Euskara Orrialde kopurua: 67 Argitaratze data: 2007ko urria Ikerketa eskuratzeko: www.gaindegi.org

ADIN PIRAMIDEA. EUSKAL HERRIA 2001 (%)



Iturria: www.datotalia.net

Prentsan jasotakoa

Kazetari ezagunek 2007an landuenak izan diren gaien *top ten* zerrenda osatu dute

- Hazi transgenikoak - Mixel Garikoitz.
- Araba, Bizkai eta Gipzkoako kutxen bateratzea - Ivan Santamaria.
- Nafarroako lurralde antolamendu eredua - Juan Angel Monreal.
- Sozietateen gaineko zerga - Alazne Basañez.
- Iparraldeko egitura ekonomiko eta sozialak - Aitor Renteria.
- Lan istripuak - Begoña Martin.
- Arrantza: antxoa eta hegalaburraren kostera - Aitziber Arzallus.
- Euriborra eta interes tasen igoera - Xabier Aja.
- Abiadura Handiko Trena - Carlos Etxeberri.
- Volkswagen-Navarra lan hitzarmena - Juan Angel Monreal.

Arto transgenikoa gure lurretan sustraitua

Hazi transgenikoen aurkako ekintzak ugaritu dira Euskal Herri osoan. Afera honek Iparraldean izan du oihartzun handiena: 500 hektarea inguru arto transgeniko landatu dira bertan 2007 urtean. Hegoaldean, berriz, hauen landatzea ekidin nahi da, baina debekua ezartzeko eskuduntzak Madridlgo Gobernuarena izaten jarraitzen du.

- Otsaila. Eusko Jaurilaritzak Araba, Bizkai eta Gipuzkoako lurrik transgenikorik gabeko lur eremu izendatu zituen eskuduntzarik ez izan arren.

- Otsaila. ELB sindikatuek, Iparraldean Paueko Laborantza Ganberak arto transgeniko *indarrez* sartu nahi zuela salatu zuten.

- Martxo. Frantziako gobernuak Nekazaritza Sailak Transgenikoen kulturako erregistro nazionala sortu zuen. Datua: Iparraldean 500 hektarea arto transgeniko landatu ziren (Aturrialdean, Amikuzen eta Hazparnen).



- Martxo. Arto transgenikoa Iparraldean saltzen hasiko zela berritsi zuen Lur Berri kooperatibak (Aiziritze -Nafarroa Beherea-), Iparraldeko arto hazi saltzaile nagusia.

- Apirila. Ekologistak Martxan-en arabera, Nafarroa Garaian landatzen den artoaren %10 eta %20 arteen transgenikoa da.

- Apirila. Mobilizazioak Lur Berri kooperatibaren egoitzan, 120 lagun inguru.

- Ekaina. Europako Batasunak produktu ekologikoak landatzen diren eremuetan transgenikoak %0,9 izatea baimentzen duen legea onartu zuen.

- Urria. Arto transgenikoa arto biologikoa xehatzen duela frogatu zuen Bio-Aquitaine elkarteak

Saint Dosen (Frantzia).

- Urria. Arto transgenikoa saltzea debekatzeko nahia azaldu zuen Sarkozy, urtarrilean legea egingo zuela zioen.

Michel Garicoix

HEDA PRESSE

Berri agentziako Erredakzio Burua

Iparraldean, JAO-ei buruzko ekintzak ugariago izan dira 2007an. Ohargarri izan da, apirilaren 14etik 17ra, Donapaleuko Lur Berri Kooperatibaren egoitzan militanteek egin duten okupazioa. Salatzen zuten arto JAOz ereinak izan diren zenbait hamarkada hektarea, bereziki Bidaxuneko kantonamenduan (Baiona ondolan). Bestalde, herri sartzeetan Udalek ezarritik seinale hauek agertzen hasiak dira «*Dans cette commune...*» «*Herri huntan, JA-Orik ez da!*».

OGM/JAO: Jitez Aldatu Organismoak.

Gatazka politikoaren eragina EAEko aurrezki kutxen bateratze prozesuan

Araba, Bizkai eta Gipuzkoako aurrezki kutxen fusioak sindikatu eta euskal enpresariaren babesa du, baina desadostasuna afera politikoan datza. Fusioak, BBK, Kutxa eta Vitalkutxa Espainiako Estatuko hirugarren entitate nagusia bihurtuko luke irabazien ranking-ean egungo merkatuan lehiakorrago bihurtuz.

- Otsaila. PPK eta PSEk ez zuten babestu Araba, Bizkai eta Gipuzkoako aurrezki kutxen integrazioa. EAJren aburuz, integrazioa egingo zen, hauteskundeak igarota.

- Otsaila. Vitalkutxan integrazioaren kontrako plataforma bat sortu zen. Vitalkutxako presidente Gregorio Rojo Arabako Enpresariaren Sindikatutik (SEA) kargugabetu zuten.

- Iraila. Xabier Agirre (EAJ) Arabako ahaldu nagusi aukeratu zuten, PSEren botoekin. PPren aburuz, Vitalkutxaren desagerpena hurbil zegoen eta mobilizazioak iragarri zituzten.

- Urria. Juan Jose Ibarretxek 2008ko urriaren 25ean iragarritako herri galdeketa pro-

posamenak kutxen fusioaren gaiari eustea eragozten zuela esan zuen PSE-k.

- Urria. Confebask-ek, Euskal Enpresariaren Konfederakuntzak, bere babesa eman zion proiektuari; fusioak, kutxa bakarrari, balizko inbertsio nahiz kreditu ahalmena areagotuko lizkiokelako.

- Urria. Xabier Irala (BBK), Carlos Etxepare (Kutxa) eta Gregorio Rojok (Vitalkutxa) aho batez zioten ziurgabetasunik gabeko agertoki politikoa bizi zuela Euskal Herriak baina, bateratzea premiazkoa izateaz gain, enpresa ekintza bat zela zioten eta ekonomia nahiz gizarte balio sortzaile.

- Urria: Espainiako Lehia Batzordeak 24 milioi euroko isuna ezarri zien BBK, CAN, Kutxa, eta Vitalkutxari, euren arteko norgehiagoka ezabatzeko tratua egiteagatik. Bulegoak beste herrialdeetan paratu ez izana justifikatzeko bateratze prozesuaren zain zeudela argudiatu zuten BBK-k eta Kutxak.



Ivan Santamaria

BERRIAko kazetaria

Beste urte bat alferrik galdu ondotik, kutxak bateratzeko ideiak abiadura har dezake, erakunde bakoitzeko batzar orokorraren erdia berritzeko hauteskunde prozesua martxan baitago. PP eta PSEren arteko batasunaren pitzadurak beste gehiengo bat eratzeko bideragarri bihurtuko du Vitalkutxan. Haatik, bat egitearen aldekoek kutxen kontrola eskura izanik ere, bertigo politikoaren menpe geratuko da, berriro, ikuspuntu ekonomiko eta sozial batetik atzeraezina dena.



Juan Angel Monreal
DIARIO DE NOTICIAS
egunkaria, Ekonomia
saileko kazetaria

Lurralde Antolamendurako Planak 86 iradokizun eta alegazio jaso zituen, azaroa bitartean. Plan horrek bost zaitan banatzen du Nafarroa Garaia. Iruñerriko industria-lurrak %50 handitzeko asmoa du eta Erdialdean zerbitzu-sektorea eta kultur ondarea bultzatzeko gomendatzen du.

Garapenerako bost eredu desberdin Nafarroa Garaia zatitu batean

Nafarroako Lurralde Estrategiak (NLE) bost eskualdetan banatzen du Nafarroa Garaia. 2009 urtera begira, Nafarroako Gobernuak lurralde antolamendu plangintza eta metodologia berria eta bakarra izan nahi ditu. 2007 urtea, aldiz, iradokizunen urtea izan da nafar guztientzat, izan eragile nahiz gizabanako.

- 2006ko azaroan Nafarroako Lurralde Estrategia (NLE) aurkeztu zuen Nafarroako Gobernuak. Eztabaidarako epea 2007ko irailean amaitu zen.

- Urtarrila (2007). Nafarroako Gobernuak Gendulainen, Iruñerrian (NLE2), 19.000 etxebizitza berri eraikitze proiektua aurkeztu zuen. Bertako alkate eta eragileen araber, proiektua ez zetorren bat NLEn zehaztutakoarekin.

- Otsaila. Sakanako herrietan (NLE1) lurralde antolamendu proiektua aurkeztu zen: helburu nagusia industria bultzatzea.



- Martxoa. 85 milioi euro bideratu zituen Nafarroako Gobernuak Pirinioko (NLE3) Garapen Planerako; gakoa ondare artistiko-kulturala eta naturala bultzatzea. Bertako eragileek *Pirinioa Bizirik* lelopean biztanleriaren galtzea salatu zuten.

- Martxoa. Iruñerrian industria-rako lurzorua %50 baino gehiago ugartzea aurreikusten zuen NLEk.

- Apirila. Esako Fundazioa sortu zen Pirinioko Garapen Planaren baitan.

- Iraila. NLEren eztabaidarako epea luzatu zen: Urriak 30 arte.

- Iraila. Iruñerriko merkatariek NLEko txostenean komertzioa sustatzeko planak jaso behar zirela aldarrikatu zuten.

- Urria. Nafarroako oposizio politikoak NLEaren errebisioa beharrezkoa dela dio lurraldeen arteko

oreka zaintzen ez delako.

- Azaroa. Aurreproiektuak 86 iradokizun jaso zituen. Iradokizunen gaineko behin betiko txostena 2008 hasieran aurkeztuko da. 2009 urte bitartean, NLEek proiektu fasea garatuko dute.

Fiskalitateak Araba, Bizkai eta Gipuzkoa aurrez aurre ipini ditu

Brusela nahiz Espainiako autonomia erkidegoen desadostasunarekin, Araba, Bizkai eta Gipuzkoak sozietateen gaineko tasa baxuagoa izango dute. Gipuzkoako tasa finkatzeak sortu ditu buruhausteak. Dekretuz, Gipuzkoan, %28ko tasa ezarri da beste bi herrialdeetan bezala, baina erabakia mantentzea Gipuzkoako Batzar Nagusiari dagokio.

- Otsaila. Araba, Bizkai eta Gipuzkoako diputazioek Eusko Jaurlaritzarekin sozietateen gaineko zerga berria ezartzea adostu zuen (%28ko tasa). Nafarroa Garaian %30 izango da 2008 urtean.

- Martxoa. EAJk ezin izan zuen akordiorik lortu Gipuzkoako diputazioan. EAJ eta PSEk %30eko tasa defendatu zuten.

- Martxoa. Araba eta Bizkaiko diputazioek onartu egin zuten %28ko tasa, EAJ eta PPren botekin.

- Martxoa. ELAk salatu zuen Araba, Bizkai eta

Gipuzkoako enpresaburuek ordaintzen zuten sozietate zergaren tipoa %18 ingurukoa zela.

- Ekaina. Europako Auzitegiak opor fiskalen auzian Espainiako Gobernuak zigortu zuen.

- Uztaila. EAEn, 300 enpresa inguruk lortu zituzten inbertsioak sustatzeko abantailak 1995-1999. urte bitartean (onura 2.000 milioi euro).

- Abuztua. Gipuzkoako ahal-dun nagusi Markel Olanok Gipuzkoan ezarriko zen tasa %28 izango zela berretsi zuen.

- Iraila. EAJk eta EAK batasun fiskala apurtu zuten lehen aldiz EAEn, eta %30eko tasa hitzartu zuten. Adegik gogor kritikatu zuen erabakia.

- Urria. EAJk EARekin hitzartutako akordioa apurtu zuen Gipuzkoan. EAJk %28 tasa berretsi zuen.

- Abendua. Dekretu bidez, Gipuzkoako Diputatuen Kontseiluak, Gipuzkoako sozietateen gaineko zerga %28an finkatu zuen. Dekretua Batzar Nagusiak onartu beharko luke 30 eguneko epean.



Alazne Basañez
GARA egunkariko
Ekonomia Saileko Burua

2007ko urtearen azken egunean sozietateen gaineko zerga dekretuz onartzeko Gipuzkoan eginiko ez ohiko diputatu kontseiluak fiskalitatearen inguruan Euskal Herrian nagusi den politikaren argazki garbia erakusten du. Irabazien gainera enpresek ordaintzen duten zerga %28an finkatzeko xedez, EAJk bere bitarteko guztiak lanean jarri ditu justua eta bantzailea ez den formula baten alde. Praktikan, gainera, portzentaje hori gehiago jaisten da. Kontua da soldatapekoek aberastasunaren banaketan duen pisua murrizten ari dela enpresa eta kapitalaren errenten mesederako.



Aitor Renteria
BERRIAko kazetaria

Iparraldea geroz eta lausoago

Instituzio publikoen gabezia handia da Iparraldean eta dauden zerbitzu publiko gutxi horiek atzerrira daramatzate, Pau edo Bordelen mesedetan. Gainera, Frantziako Estatuak daukan defizita murrizteko Parisko Gobernuak hartutako neurriak ez dute batere laguntzen daudenak bertan gera daitezen.

- Ekaina. Nicolas Sarkozy presidentea zerbitzu publikoak murrizten eta berrantolatzen hasi zen Frantziako Estatuak zuen defizita gainditzeko.

- Ekaina. Baionan dauden justiziako zerbitzu guztiak Pauera eraman nahi zituela iragarri zuen Frantziako Gobernuak Justizia sailak. Ziurra da 2010 urte aurretik Donapaualeko (Nafarroa Beherea) eta Miarrizteko (Lapurdi) auzitegiak itxiko dituztela.

- Ekaina-Uztaila. Baionako Justizia Handiaren (IHA) lotutako abokatuek greba egin zuten ekainaren 26tik uztailaren 9 arte.

- Ekaina. Familien laguntzarako kutxa (CAF) Baionatik Pauera eraman nahi dutela iragartzen da, 2011an gauzatuko ei da berrantolatze prozesua.

- Uztaila. Baionako gizarte-segurantzako ku-

txa (CAPM) desegituratzeko asmoa ere agertu zuen Parisko gobernuak. Oraindik ez da neurri zehatzik plazaratu gai honen inguruan.

- Uztaila. Enpresen zerga sozialak biltzen dituen egitura (URSSAF) Baionatik Pauera bidaliko dituztela iragartzen da.

- Iraila. Zuberotarrak enpresa zergak Oloruen (Frantzia) ordaintzen hasi ziren, Baionan izan beharrean.

- Urria. LABek hurbileko zerbitzu publikoak Euskal Herrikan kanpora ez eramateko eskaera egin zuen Donapaualeko instantzia auzitegiaren aurrean.

- Urria. Baionako auzitegiako abokatuek manifestazioa egin zuten Pauen.

- Azaroa. CFDT sindikatuak URSSAFeko arduradunekin bildu ziren Parisen. URSSAFeko egitura nagusia Baionan mantentzea eskatu zuen sindikatuak.

- Azaroa. Zerbitzu publikoa arriskuan dagoela salatze greba egin zuten funtzionarioek. 5.000 lagun inguru izan ziren Baionan egindako elkarretaratzean.

Iparraldeko zerbitzu publikoak mamirik gabeko eskola bihurtuko ditu Frantziako Estatuak, kasurik baikorrenean. Hainbat sail Baionatik kendu eta Frantziara eramanez dituela jakinarazi du.

Astero, bina-bina, langileak zulora

Azken bi urtetan 115 langiletik gora galdu dute bizia Euskal Herrian. Eraikuntza sektorean hil dira nagusiki, eta gehienak atzerritarrak izan dira, azpikontratazkoak eta lan baldintza kaxkarrak direla medio. 2007 urtean, Laneko Segurtasun eta Osasun Plan bi onartu ziren Hegoaldeko administrazioetan, hauek, baina, ez zuten sindikatu guztien onepena jaso.

- Urtarrila. 129 langilek bizia galdu zuten lan istripuz 2006. urtean Euskal Herrian.

- Otsaila. Lan ingurunean izandako heriotzen %19 lanerako joan etorrietan izandako istripuetan eman ziren.

- Martxoa. Nafarroako II Laneko Segurtasun eta Osasun Plana sinatzen zuten Gobernuak, patronalak eta UGT eta CCOO sindikatuek.

- Apirila. Adegiren arabera, 2006. urtean lanean izandako heriotzak sektoreka %50 gutxitu ziren Gipuzkoan. UGT-k, aldiz, 2007ko le-



hen hiru hilabeteetan heriotzak %50 gehitu zirela baieztatu zuen, 2006ko epealdi beretik.

- Maiatza. Sindikatu guztiak bat zetozen eraikuntza sektorean izaten diren lan istripuak enpresarien utzi-keriagatik izaten direla esate-rakoan.

- Maiatza. Patronala, sindikatuak eta administrazioak ez zuten Osalanen kudeaketarako plana adostu.

- Uztaila. Hiru sindikatuak garraiolarien lan baldintzen inguruan EAEko Laneko Osasun eta Segurtasun Planean (2007-2010) aipamen berezia egitea eskatzen zuten.

- Urria. Laneko Osasun eta Segurtasun Plana (2007-2010) eztabaidatu zen Gasteizko Legebiltzarrean. EAEn, urteko ikuskatzaile bakoitzak 3.200 enpresa ikuskatze 1.600 ikuskatzera pasatuko da.

- Abendua. LAB-en arabera, 117 langilek bizia galdu zuten lan istripuz 2007. urtean Euskal Herrian.



Begoña Martín
NOTICIAS DE ALAVA
egunkariko ekonomia
saileko erredaktorea

Lan Arriskuen Prebentzioarako Legea aplikatzea lehentasuna izan beharko luke euskal enpresentzat. Hala ere, konpainia desberdinen inbertsio faltari, bai segurtasun nahiz lan-osasunaren inguruan, Administrazioak izan dezakeen erantzukizuna batzen zaio. Lan Ikuskaritzatik, Gobernu Zentralaren menpekoa, giza baliabide gehiago eskatu izan dituzte hainbatetan. Teknikariak urriak dira eta legea bete denentz egiaztatzen berandu helden dira.



Aitziber Arzallus
BERRIAko kazetaria,
Egitura Gehigarrian

Antxoa eta hegalaburraren kanpainak aurrez aurre jarri ditu arrantzaleak



Bizkaiko Golkoran antxoa galzorian dago, halere, antxoaren harrapaketa esperimentalai baimendu zuen Europako Batzordeak, irizpide zientifikoaren kontra, Frantziako Gobernuak egindako presioari erantzunez. Hori gutxi balitz hegalaburraren kosterak arrain gutxiago utzi zituen orain 25 urteko prezioekin. Iparraldeko arrantzaleek, berriz, Bruselak agindutako kuota ia bikoitza harrapatu zuten iaz.

- Otsaila. 2006ko abenduan Europako Batasunak antxoaren harrapaketa esperimentalai baimendu zuen Bizkaiko Golkoran apirilaren 15etik maiatzaren 15 bitarte.

- Martxoa. Eusko Jaurlaritzak esan zuen Araba, Bizkai eta Gipuzkoan merkaturatuko den antxoaren jatorriaren inguruko jarraipena egingo zuela.

- Martxoa. Gipuzkoako kofradien presidente Jaime Tejedorrek zioen Frantziako Gobernuaren jarrera mehatxu bat dela Bizkaia eta Gipuzkoako arrantzaleentzat.

- Ekaina. Antxoa kopurua ez zela behar adina hazi dio Aztiren ikerketa batek. Bioman kanpainan (Espainiako gobernuak) antzeko emaitzak lortzen zituzten. 2008 urte bitarte antxoa ez harrapatze-ko iradoki zuen Aztik.

- Uztaila. Europako Batzordeak urtea amaitu arte antxoaren harrapaketa debekatu zuen.

- Abuztua. Hegaluzeko eta hegalaburraren kanpaina hasten da.

- Abuztua. Hegalaburraren prezioa lonjan orain 25 urtekoaren parekoa izan zen.

- Abuztua. Atzerritik eta hemengoa balitz bezala merkaturatutako arrainarekin neurriak hartzeko eskatu zuten Euskal Herriko arrantzaleek.

- Abuztua. Frantziako Estatuko eta Iparraldeko arrantzaleek Bruselak ezarritako kuota gaintu zuten, 9.000 tona 5.494 arrantzatu beharrean.

- Abendua. Europako Batasuneko arrantza ministroen kontseiluak antxoa arrantzatze-ko debekua 2008ko ekainerarte luzatu zuen.

Ulertezina iruditzen zait Hego Hegoaldeko arrantzaleen jarrera. Azken bi urteotan, kosta ahal kosta, zientzialarien esana defendatzen aritu izan dira, eta orain, bat-batean, haien aholkuen gainetik, itsasora iriteteko prest daude. Garbi dagoena da, Bizkaiko Golkoko antxoari erredukuperatzen utzi ezean, erabat desagertuko dela.

Euriborra zerutik, zordunak eroturik

Euribor indizeen eta interes tasen igoerak ez ditu etxebizitza erosleak kikiltzen. Azken zazpi urteetako mailarik handienara iritsi zen Euriborra abenduan (%5 inguru), interes tasek ere etengabe gora egin dute 2007an, eta AEBtan higiezinaren merkaturatua krisi sakon batean sartu zen udan. Euskal Herrian krisiaz hitz egiteko, halere, oraindik goizegi dela irizten diote adituek.

- Urtarrila. Euriborra %4,064an kokatu zen. Batez besteko hipoteka 155.000 euroen bueltan ibili zen urte hasieran.

- Martxoa. Hipoteka berri behar izan zutenek batez beste 110€ gehiago ordaindu behar izan zuten hilero.

- Maiatza. EBZk %3,75en utzi zituen inte-

res tasak ekainean igotzekotan. 2006ko martxotik interes tasa kopurua bera izan zen.

- Ekaina: AEBtako burtsa krisi sakon batean sartu zen. Interes tasen igoerak eta merkaturaren geldialdiak zorrak handitu zituen askoren artean.

- Ekaina. Euriborrak, %4,5eko muga gaintu zuen, eta azken sei urteetako maila altuenera iritsi zen (urtebetean %30eko hazkundea).

- Abuztua. EBZk 47.665 milioi euro gehiago sartu zituen merkaturatu, hipoteken krisia eragozteko. Interes tasa %4an kokatu zuen finantza erakundeak.

- Abendua. Euriborra %5 inguruan zebilen, inoiz baino altuen. EBZ, 348.607 milioi euroko inbertsioa egin zuen eta indizea %4,6ean finkatu zuen.



Xabier Aja
DEIA egunkariko
Ekonomia Saileko burua

Espainiako Estatuan, oro har, eta Euskadin, bereziki, euroa hedatzearekin batera asko merkaturatu da diruaren prezioa azken urteotan, eta horrek izugarri handitu ditu barne-eskaria eta *adreibuaren boom-a* delakoa, emandako mailegu ugari eta merkeei esker. Mundu zoriontsu hori zapuztu egin da urteko azken hiru hilabeteetan, AEBtan arrisku-taldeein emandako hipoteka asko eta asko ordaindu gabe gelditu direla jakitean.

Egoera ikusita, bankuek mailegu gutxiago ematea eta ematen dituztenak garestitzea erabaki dute, eta ekonomiaren moteltze orokorra eragin du horrek.

Errailen gainean ingurumena zeharkatuz

